

GRADUA: INDUSTRIA ANTOLAKUNTZA
GRADU AMAIERAKO LANA

**<EROSKETA ETA KONTRATAZIO
PUBLIKO BERDEA EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN>**

Ikaslea: <Etxaniz Agirre, Pello>

Zuzendaria: <Basañez Llantada, Aitor>

Ikasturtea: <2017-2018>

Data: <Bilbo, 2018, ekaina, 28>

Laburpena

Erosketa eta kontratazio publiko berdea goranzko ibilbide duen politika bat da. Izan ere, gastu publikoak, administrazio publikoek produktuak erosten eta zerbitzuak kontratatzen gastatzen duten diruak, pisu handia du gaur egungo gizartean. Honi ingurumenarekiko jokabidea hobetzeko beharra gehitzen badiozu, erosketa eta kontratazio publiko berdea da ekuazioaren emaitza edo soluzioa. Politika berritzaile hau produktuen erosketan eta zerbitzuen kontratazioetan ingurumen-irizpideak sartzean datza. Hau da, zerbait erosi edo kontratatu aurretik ingurumenarekiko errespetagarria dela ziurtatzea.

Lan honen bitartez erosketa eta kontratazio publikoak berdeak Euskal Autonomia Erkidegoan izan duen ibilbidea aztertzea bilatzen da, gaurko egoera zein den eta nola iritsi den aztertuz. Demostratu nahi da benetan alderdi guztientzat onuragarria den politika bat dela, eta gaur egungo bezalako gizarte aurrerakoi batean aplikatu beharrekoa.

Lan hau garatzeko erabili den metodologia bibliografikoa da. Hau da, lanaren edukiaren zati handienak beste lan, artikulua, programa eta abarretan du oinarri.

Lanean argi gelditzen da erosketa eta kontratazio publiko berdeak ingurumenean hobekuntzak eragiteko duen gaitasuna, izan ere, erosketa publikoa BPGaren %20 inguru da. Bestalde, politika hau normalizazio bidean dagoela esan daiteke, behin betiko finkatzeko bidean, dagoeneko hainbat produktu eta zerbitzuetan guztiz txertaturik.

Resumen

La compra y contratación pública verde es una política en alza. Hoy en día el peso del gasto público, el dinero invertido en comprar productos y contratar servicios por las administraciones públicas, en la sociedad es muy grande. Si a esto le sumamos la necesidad de mejorar el comportamiento en cuanto al medio ambiente, la solución o resultado de la ecuación es la compra y contratación pública verde. Esta política innovadora se basa en la introducción de criterios ambientales en la compra de productos y contratación de servicios. Es decir, antes de comprar o contratar algo asegurarse de que no daña al medioambiente.

En este trabajo se busca analizar la trayectoria de la compra y contratación pública verde en la Comunidad Autónoma del País Vasco, su situación actual y como ha llegado a esta. Se quiere demostrar que es una política beneficiosa para todas las partes, y que en una sociedad tan avanzada como la actual es necesario aplicarla.

La metodología que se ha usado para desarrollar este trabajo ha sido puramente bibliográfica. Esto es, la mayor parte del contenido del trabajo está basado en otros trabajos, artículos, programas etc.

En este trabajo queda clara la capacidad de mejora en el medio ambiente de la compra y contratación pública verde, ya que, la compra pública suele rondar por el 20% de PIB. Por otra parte, se puede decir que esta política está en camino de normalizarse, en camino de afianzarse en las administraciones, donde ya está presente en varios productos y servicios

Abstract

The green public procurement is a rising policy. Nowadays, the weight of the public spending, the money spent buying products and contracting services, in the society is great. If we sum the need to be more responsible with the environment, the result or solution of the equation is the green public procurement. This innovating policy consists in taking environmental issues into account when tendering for goods or services. This is to say, to secure that what we buy or contract is environmentally friendly.

In this work, is found the analysis of the path of the green public procurement, the actual situation and how has arrived to this situation. Is wanted to prove that the green public procurement is a beneficial policy for every part, and that is necessary to apply it in such an advanced society.

The methodology that has been used to develop this work has been purely bibliographic. That is, most of the content of the work is based on other works, articles, programs, etc.

In this work, it can be easily seen the capacity to improve the environment of the green public procurement, since the public procurement normally around the 20% of the GDP. Furthermore, it can be said that this policy is on course to normalize, is on a way to consolidate in the public administrations, where it is already present in some product and services.

AURKIBIDEA

1 Sarrera.....	7
2 Helburuak.....	10
3 Irismena.....	11
4 Metodologia.....	12
5 Marko teorikoa.....	13
5.1 Kontzeptua.....	13
5.2 Bilakaera.....	14
5.3 Legedia.....	17
5.4 Onurak.....	21
5.5 Oztupoak.....	23
5.6 Antzeko filosofia eta politikak.....	25
6 Erosketa eta kontratazio publiko berdearen egoera EAEn.....	29
6.1 EAEn ezaugarri nagusiak.....	29
6.2 EAEn sektore publikoaren analisia.....	32
6.3 EAEn ingurumen egiturak eta politikak.....	37
6.4 Erosketa publikoa EAEn.....	43
6.4.1 Eusko Jaurlaritzaren Lehenengo Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2011-2014 ..	45
6.4.2 Euskadiko Bigarren Erosketa Eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa – 2020.....	52
6.4.3 Gipuzkoako udalerrien azterketa.....	56
7 Espainiako egoerari gainbegirada.....	60
7.1. Kontratazio Publiko Berderako Plana.....	60
7.2 Lehenengo informea: 2011.....	60

7.1.3 Bigarren informea: 2015.....	61
8 Erosketa eta kontratazio publiko berdea Europan.....	64
9 Gantt diagrama.....	66
10 Txostenaren gauzatze-kostuak.....	67
11 Ondorioak.....	69
12 Erreferentziak.....	70

Taulen zerrenda:

- 1.taula: Kontratazio publikoa Europan
- 2.taula: EAEn BPG sektoreka(%)
- 3.taula: Enplegua EAEn sektoreka(%)
- 4.taula: Industriaren BPG, BPG totalarekiko (%)
- 5.taula: Industriaren enplegua, enplegu totalarekiko (%)
- 6.taula: Pertsona enplegatuak Euskal Administrazioetan
- 7.taula: 2020 programaren helburu kuantifikagarriak
- 8.taula: Administrazioen ingurumen eskakizun nagusiak
- 9.taula: Udalerri ezberdinen jardunbideak
- 10.taula: Txostenaren emaitzak
- 11.taula: KPBPean sartutako produktu eta zerbitzu multzoa
- 12.taula: KPBPean sartutako produktu eta zerbitzu multzoa
- 13.taula: Eginkizunak eta hauek aurrera eramateko denborak
- 14.taula. Barne orduak
- 15.taula. Amortizazioak
- 16.taula: Beste gastu batzuk

17.taula. Gastu totala

Irudien zerrenda:

1.irudia: EKPB Europan 2011n

2.irudia: Erosketa eta kontratazio publiko berdearen aktoreak

3.irudia: Produktuen kostu ezberdinen irudi grafikoa

4.irudia: Bultzatze-estrategiaren ikuspegi operatiboa

Grafiekoen zerrenda:

Grafikoa 1: Eusko jaurlaritzaren sailak

Grafikoa 2:Eusko Jaurlaritzaren gastu-aurrekontua

Grafikoa 3: Eusko Jaurlaritzaren gastu-aurrekontu eta BPG aldaketa

Grafikoa 4: Ingurumen eskakizunak egiten zaizkien produktuak/zerbitzuak

Grafikoa 5: Gantt diagrama

1- SARRERA

Lur planeta sortu zenetik etengabe aldatzen joan da. Aldaketa hauetan zeresan handia izan du gizakiak. Naturan eskura dagoen guztia hartu du bere biziraupen eta ongizatea bermatzeko, inongo erreparorik gabe. Hau egiten jardun du bere existentziatik, are gehiago, denborak aurrera egin ahala aldaketen magnitudea asko handitu da, egunero-egunero naturan aldaketak eragin ditzaketen errekursoak esponentzialki handitzen baitira.

Inguratzen gaituen produktu oro eraldatutako natura zati bat da, baliabide natural berriztagarri edo ez-berriztagarrietatik lortuak izan daitezke, baina guztiak naturatik ateratako lehengaietatik sortuak dira. Beraz, baliabide naturalen gestioaren menpekoa da gizakiaren biziraupena gure planetan.

Jakina da gizakiak eskura dituen errekurso naturalen erabilera ez dela optimoa izan bere existentziatik. Are gehiago, baliabide natural hauen kudeaketa benetan kaxkarra izan dela esan daiteke. Honen adierazle dira honako datu hauek: munduan nekazaritzarako erabiltzen diren lurren %52 degradazio larriaren zeinuak azaltzen ditu, arro hidrologikoen %60 presen bidez oso zatituta daude, baso azalera %46 galdu da nekazaritza aurretiko garaietatik...(Ecoespaña, 2004)

Gaur egungo produkzio sistema lineala da, hau da, baliabide naturalak lortu, eraldatu, erabili eta ondoren baztertu egiten dira. Natura ez da gai baliabide naturalak sortzeko gizartearen kontsumoaren erritmora. Sistema lineal honekin ezin dela etengabe jarraitu argi dago, lur planetaren errekursoak ez direlako infinituak eta horrela xahutzen jarraituz gero hauekin amaitzeko posibilitatea erreala da.

Gizarte moderno honetan eredu sozialari dagokionez inoiz ez bezalako ongizatea lortu da garapen ekonomikoari esker. Garapen-eredu honek, ordea, lehengaiekiko erabateko mendekotasuna ere ekarri du. Munduko biztanleriaren hazkuntza jarraituak eta baliabide naturalen gaineko presio gero eta handiagoak hornikuntzen segurtasuna arriskuan jartzen du.

Arazo hau aski jakina izan da aspalditik eta ingurunearekiko arazo honen inguruan izan den ardura aldatzen joan da historian zehar. Ingurunearekiko kontzientzia lehenengo industria iraultzarekin hasi zela esan daiteke. Izan ere, ordura arte ingurunearekiko inpaktua minimoa zen, produkzioa artisautzari zegokiona zen, lokala eta munduko biztanleria ez zen horren handia.

Industria iraultzak produkzio bolumena ikaragarri handitzea ekarri zuen, eta honek, baliabide naturalen erabilpen eta ingurunearen kutsaduraren

handitzea. Oraindik, ekintza hauen ondoriorik antzematen ez denez, ez da gauza handirik egiten hau zuzentzeko. Aipatzekoa ere munduaren biztanleriaren hazkuntza demografiko ikaragarria.

Bigarren mundu gerrak dena txikituta utzi eta gero, Europaren berreraikitzea hasten da. Honek ekonomiari, baliabide naturalen kontsumoari eta biztanleriaren hazkuntzari bultzada handia ematen dio. Garai honetan ematen dira lehenengo ingurumen arazo handiak eta garai honetan ematen da baliabide natural mugagabeen teoriaren amaiera.

Hala ere, benetan ingurumenarekiko kontzientzia 1972ko Meadows Informearekin hasi zen, *“Los limiten del crecimiento”* izeneko informea, zeinak inflexio puntu bat markatu zuen. Bertan aipatu zen lehen aldiz produkzio erritmoaren eta baliabide naturalen asuntza. Honen haritik etorri ziren hainbat programa ingurunea hobetzeko asmoz.

Aipatzekoa, esaterako, 1973an egin zen ingurunean eragiteko lehen programa, Europako Komunitate Ekonomikoak egin. Beste bat oso garrantzitsua izan zena, 1987an Munduko Ingurune Eta Garapenaren Komisioak garatu zuen Bruntland Informe, zeinean lehen aldiz agertzen den *Garapen Jasangarri* kontzeptua. Zer esanik ez *Cumbre de la Tierra de Río* eta *Kyotoko Protokoloa*-ri buruz. Lehena 1992an Nazio Batuen Erakundeak egin zuen hitzaldi bat izan zen bertara gerturatu ziren 178 herrialdeak garapen jasangarria bultzatzen zuten estrategiak gara zitzaten. *Kyotoko Protokoloa* 1997an egin zen aldaketa klimatikoaren inguruko gaiez jarduteko, eta batez ere aldaketa hau eragiten duten emisioak murrizteko. Hemendik aurrera, ingurumenari dagokionez esku hartzea asko handitu da.

Baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko xedez egin diren ekimen garrantzitsu guzti hauek argi azaldu dute baliabideen eta energiaren erabilera uztartu behar direla etorkizunari begira hazkundera eta enplegua bermatzeko. Horretarako, “ekonomia berde” bat garatu behar da zeinaren pilare nagusienetako bat berrikuntzan oinarritutako produktu eta zerbitzu berrien garapena izango den. Lehengai gutxiago kontsumitzen saiatu eta hondakin gutxiago sortu, nahiz eta erraza ez izan.

Hauxe da, beraz, gaur egungo erronka nagusia ingurumenari begira: ongizatea mantentzea baliabide natural guztiak agortu gabe. Behar beste baliabide lortzeko sistema orekatu bat bermatu behar da, garapen zein kontserbazio egonkor bat ziurtatuz. Baliabideen garapen jasangarria guztiok parte hartu beharreko ekintza bat da, gizaki-natura harremana ulertzetik hasi eta erabilera egoki bateraino, naturaren alderdi guztiak errespetatuzetik pasatuz.

Erronka honen aurrean hiru talde edo *stakeholders* nagusi ageri dira: kontsumitzaileak, enpresak eta administrazio publikoa. Administrazio publikoari dagokionez garapen jasangarri hori lortzeko influentzia handiena du hiru *stakeholdersetatik* eta hortaz hainbat politika erabiltzen ditu hau lortzeko. Europar Batasunaren garapena eta lehiakortasuna bermatu beharra dago, ongizatea eta hazkundera bultzatuz. Europar Batasunak paper hori aitortu du, eta arlo horretako konpromisoak hartu ditu bere ingurumen-estrategia eta garapen jasangarriko estrategia ugaritan. Tresna edota politika horiek ugari dira. Horien artean oso garrantzitsua Integrated Product Policy (IPP), zeinaren bidez lortu nahi den produktuek euren bizitza ziklo osoan zehar ingurugiroa gutxiago kutsatzea. Beste erreminta garrantzitsu bat Bizi Zikloaren Analisisa da. Hau diseinu erreminta bat da zeinak produktu baten ingurumen-inpaktuak aztertzen dituen bere bizi ziklo osoan. Aipatzekoa ere Ekonomia Zirkularra, honek materialen sarrera nahiz erabili gabeko hondakinak murriztea du helburu, baliabideen fluxu ekonomiko eta ekologikoak itxiz. Hala ere, lan honetan azken urteotan garrantzi handia hartu duen politika batean zentratuko gara, estrategia politikoen funtsezko tresna bilakatu arte: erosketa eta kontratazio publiko berdea.

Erosketa eta kontratazio publiko berdea produktuak, zerbitzuak edota obrak erosteko edo kontratatzeko orduan, irizpide ekonomikoez eta teknikoez gain, horien ingurumen portaera ere kontuan hartzean datza.

2- HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera aztertzea izango da erosketa eta kontratazio publiko berdeari dagokionez. Izan ere, ikusita gaur egun erosketa eta kontratazio publiko berdeak duen dimentsioa ezinbestekoa da honi buruzko hausnarketaren bat egitea.

Helburu nagusi hau lortzeko badira ondoren aipatuko diren beste azpihelburu batzuk ere. Lan honetan aztergai den erosketa eta kontratazio publiko berdeak gaur egungo egoeran duen parte hartzea finkatu eta zein rol duen ikusteko xedea ere badu lanak, horretarako testuingurua aztertzen da bere ingurunea hobeto ulertuz.

Bestalde, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea lehenengo aldiz aipatu zenetik gaur egun duen egoera nola lortu duen aztertzea ere bilatzen du lan honek, urteetan zehar izan duen bilakaera aztertuz.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo erosketa eta kontratazio publiko berdeak duen egoera zein den ulertzen laguntzeko helburua ere badago. Helburu hau betetzeko Espainiako eta Europako egoeraren azterketa egingo da, eta honela Euskal Autonomia Erkidegoan lortutakoa dimentsionatuko da.

Erosketa eta kontratazio publiko berdeak gizarteko zati desberdinetan nola eragiten duen ere azaldu nahi da, zein faktoreri eta zein neurritan, bakoitzari eskaintzen dizkion onurekin.

Azkenik, lan honekin ere zera bilatzen da, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen inguruan dauden aurreiritzi txar eta oker guztiak deuseztatzea, erosketa eta kontratazio publiko berdea politika aurrerakoi eta eraginkor bat dela frogatuz. Honekin lortu nahi dena oraindik politika honi etorkizunik ikusten ez dioten administrazioek martxan jar dezaten bultzatzea.

3- IRISMENA

Lan honen irismena bi multzo nagusitara mugatzen da: produktu berdeak eskatzen dituztenak eta eskari honi erantzuten diotenak.

Produktu berdeen eskatzaileak administrazio publikoak dira. Lan osoaren bolumenaren ehuneko handi bat Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoentzat zuzenduta egongo da, hauek baitira erosketa eta kontratazio publiko berdearen aktore nagusiak. Hala ere, hemen bariazio handia dago, izan ere, sektore publikoko erakunde publikoetan tokiko erakundeetatik gobernuetaraino izan daitezke erosketa berde honen bultzatzaile.

Administrazio publikoek erosketa eta kontratazio publiko berdearen bidez erosten eta kontratatzen dituzten produktu eta zerbitzuak enpresak ekoizten/eskaintzen dituzte, eta beraz zuzenean eragiten die. Enpresa handi zein enpresa txiki eta ertainei (ETEEi) zuzenduta dago, hauek politika hauetan parte hartuz gero jasoko dituzten onurak azalduz.

Aipatu beharra dago, ez direla kontuan hartuko Euskal Autonomia Erkidegoan dauden baina Espainiar gobernuak kontrolatzen dituen erakunde publikoak.

4- METODOLOGIA

Lan hau guztiz bibliografikoa da. Hau da, lan hau gauzatzeko beste lan, artikulu, programa, webgune eta abarretan oinarritu da. Lan hau burutzeko erabili den metodologia tradizionala izan da. Funtsean horrela funtzionatu da: ikaslea eta irakaslea batzar baten bidez elkartzen dira, hemen, irakasleak ikaslea gidatzen du nondik nora jo behar duen informazioa bilatzeko, zeren inguruan idatzi etab. azalduz. Ikasleak bere kabuz gaia eta lana jorratzen joan da. Tutoreak esandakoarekin ikasleak etxean jorratzen du lana. Behin aurrerapenak dituen korreoz bidali egindakoa tutoreari, honek irakurri dezan egokitasuna aztertzeko eta batzar bat hitzartu. Batzarrean idatzitakoari buruz hitz egin, eginbeharreko aldaketak proposatu eta adostu bien artean eta dudak daudenean galdetu eta konpondu.

Gai hau guztiz berri zenez, lehenik eta behin Erosketa Eta Kontratazio Publiko Berdeari buruz informazioa pilatu eta irakurri da, gaiaren nondik norakoez jakiteko. Behin ideia txiki bat izan ostean lanaren helburu nagusiak finkatzeari eman zaio pausu.

Helburuak argi eta garbi izanda, Erosketa Eta Kontratazio Publiko Berdearen testuingurua aztertu da lanari sarrera bat emateko. Hau gauzatzeko hainbat liburu eta web orrialde kontsultatu dira.

Sarrera bukatzeaz bat, kontzeptua sakonago aztertu da. Honek gaiari buruzko hainbat lan irakurri eta barneratzea eskatu du. Lan horietatik guztietatik egungoenei egin zaie kasu handiena besteak mespretxatu gabe, datuen egunerokotasunagatik. Erosketa Eta Kontratazio Publiko Berdearen historia aztertu da ondoren, honek izan duen ibilbidea ikusteko. Kontzeptua garatzeaz bat honen bilakaera aztertu da.

Ondoren Erosketa Eta Kontratazio Publiko Berdeak talde ezberdinentzako ekar ditzakeen onurak ikusteari eta honi buruzko legedia aztertzeari ekin zaio.

Behin erosketa eta kontratazio publikoaren kontzeptua argi samar dagoela, honen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan ikertu da. Honetarako, lehenik Euskal Autonomia Erkidegoa bera eta bere ezaugarriak ikuskatu dira. Ondoren, gaiarekin erlazionaturiko politika eta egiturak eta azkenik egoera bera sakonki bi programa nagusiekin.

Behin alde teorikoa bukatu, erosketa eta kontratazio publiko berdea martxan jarri direneko kasuak aztertzen dira, lehenik Gipuzkoan eta ondoren Espainian eta Europan.

5- MARKO TEORIKOA

5.1 Kontzeptua

Lehenik eta behin Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea definituko da. Europako Batzordeak honela definitzen du Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea:

“...prozesu honen bidez, agintari publikoek eskuratzen dituzten produktuek, zerbitzuek eta obrek inpaktu txikia dute ingurumenean beren bizi-zikloan zehar, haien ordezkuratu liratekeen eta lehen mailako funtzio bera duten beste produktu, zerbitzu eta obra batzuekin alderatuta”.
(Commission, 2008)

Hau da, erosketa eta kontratazio publikoaren bidez, autoritate publikoek eta erdi-publikoek bizitza-zikloan ingurumen eragin txikia duten produktuak, zerbitzuak, obrak eta kontratuak erosten eta kontratatzen dizkiete enpresei; hots, beste modu batean erositako eta erabilera bereko produktuekin, zerbitzuekin, obrekin eta kontratuekin alderatuta ingurumen eragin txikiagoa dutenak. (Ihobe, 2010)

Hortaz, prozesu honek ingurumenarekiko portaera hobetuko duten irizpideak ezartzen ditu produktuak, zerbitzuak edota obrak erosteko edo kontratatzeko orduan, irizpide ekonomikoak eta teknikoak ahaztu gabe. Irizpide berritzaile hauen helburua hautatutako irtenbideek ingurumen inpaktu txikia izatea da. Erositako edo kontratatutako produktu, zerbitzu edo obra orok bete behar duen ingurumen-araudi arruntez gain irizpide berde eta berri hauek eraginkortasunez bete behar dira.

Kontuan hartzen diren ingurumen aspektu horiek erabilitako edota erositako materialei zein produktuei dagozkie, baita kontratuak gauzatzeko metodoei eta prozedurei ere. Horrez gain, aintzat hartzen da hornitzaileen eta ekoizleen ingurumen portaera ere.

Erosketa eta kontratazio publiko berdearen oinarri diren irizpideak aplikatuz, administrazio publikoen eros ahalmena modu estrategiko eta guztientzako onuragarri batean erabilia izan daiteke. Argi baitago erosketa eta kontratazio publiko hauen bolumen ekonomikoak indar handia duela ingurumenari kalterik eragiten ez dioten produktuen eta zerbitzuen merkatuak garatzeko. Bada, Europako sektore publikoak 2 bilioi euro gastatzen ditu, gutxi gorabehera; hots, Europar Batasuneko BPGd-aren %19. (Ihobe, 2016a)

Kontratazio publikoa erabiliz gero eraginkortasun handiagoa lortzen da beste hainbat beste hainbat printzipiotan, esaterako, baliabideak erabiltzean produktiboak izatean, ekonomia zirkularrean eta bizi-zikloaren ikuspegian. Horren ondorioz, administrazio publikoak itxura eredugarri bat agertzen duenez, trakzio-efektu baten bidez sektore pribatua eta gizartea ingurumena gehiago zaintzea ekartzen du.

Kontsumoaren eta ekoizpen jasangarriaren politiketako ikuspegi berri horiek eta kontratazio publikoari buruzko Europako Zuzentarauen erreformak estrategia politikoaren funtsezko tresna bihurtu dute kontratazio publikoa.

Bestalde, Europar Batasunak ekonomiaren bizkarrezurtzat ditu enpresa txiki eta ertainak (ETEak). Hau horrela ahalegina egin behar da ETEak kontratazio publikoan barneratu ahal izateko. Izan ere, ETEak politika honetan parte hartu dezaketen enpresen artean sartzeak onura kontsideragarriak dakartza bai ETEendako zein ekonomiaren garapenarentzako. Are gehiago, tokian tokiko garapena sustatzeaz gain, ingurumenean ere nabaria da onura, erkidego osoaren eta enpresen lehiakortasunaren mesedetan.

Zer lortu nahi dute administrazio publikoek erosketa eta kontratazio publiko berdearekin?

- Hazkunde ekonomikoa baliabide materialak erabiltzetik banantzea, ekoizpen-eta kontsumo-politiken bidez.
- Ekonomia zirkular bat sustatzea, hondakinak prebenitzeko eta materialak berreskuratzeko eta berrerabiltzeko politiken bidez.
- Karbono gutxiko ekonomia baterantz aurrera egitea, politika energetikoen bidez

(Ihobe, 2016a)

5.2 Bilakaera

Erosketa eta kontratazio publiko berdeak 80ko hamarkadan ditu bere sustraiak. Gai ekologikoetan herrialde aurreratuenak Europa iparraldean daudenak direla aski jakina da: Danimarka, Suedia, eta Finlandia esaterako, eta hauekin batera bai Alemania bai Austria. Hortaz, ez da harrigarria administrazio publikoak produktu birziklagarriak erabili behar zituela, bai lokalki zein nazionalki, esaten zuen ideia Danimarkan sortua izana. Ezta ere, Suedian dutela iturburu, politikoak eta langileak produktu berde eta ingurugiroaren gestioa bezalako gaietan gaitzen zituzten programak.

2001ean Gotemburgoko Europako Kontseiluaren aurrean «Mundu hobe batentzako Europaren garapen jasagarria: Europar Batasunaren estrategia garapen jasagarri baten bila» ikerketa azaldu zuten. Estrategia honek Europan marko politiko bat ezarri zuen. Helburu nagusienetariko bat erosketaren eta kontratazio publiko berdea bultzatzea zen, ingurumen eta teknologia arloetako berrikuntzez gain.

Urte berdinean, 2001ean, Europar Komisia Ingurumen Arloko Komunitate-Ekintzen inguruko Seigarren Programari buruzko komunikatua egin zuen publiko. Programak, etiketa ekologikoaren eta erosketaren publiko berdearen bultzada ematen zuten edukia zeukan.

2003an, kontratazio publiko berdea lantzeko gomendia sartu zuen Europako Batzordeak Produktuen Politika Integratuari (IPP) buruzko adierazpenean, merkatua produktu ekoeraginkoragoetarantz bideratzeko. Kontuan hartuta kontratazio publikoa Europako barne produktu gordinaren %16 zela (EAEn, BPGren %14), argi dago handia zela kontratazio publikoaren trakzio indarra.

2004 urte amaieran aurkeztu zen KOK-Report txostenean berriro egiten zaie Estatu kideei erosketaren eta kontratazio publiko berdearen ekintza planak ezartzeko gomendia. (Ihobe, 2010)

Urteen joanarekin, eta iparraldeko herrialde hauen arrakasta ikusi eta gero Europako Batzordeak ikerketa sail bat landu zuen. 2005ean RELIEF izeneko proiektu bat garatu zen kuantitatiboki eta zientifikoki neurtzeko eta ebaluatzeko kontratazio publikoa. (García, 2009).

Gainera 2005ean ere Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ikerketa bat argitaratu zuen (Commission, 2005). Bertan, Europako herrialde nagusienek kontratazio publikoari eskaintzen zioten diruaren ehunekoa eta ingurumen lizitazioak zenbateko ehunekoa zuten adierazten ziren bertan hurrengo 1.taulan ikusi daitekeen bezala:

HERRIALDEAK	KONTRATAZIO PUBLIKOARI ESKAINITAKO BPG %	INGURUMEN IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK
Alemania	%17	%70
Austria	%16	%60
Danimarka	%19	%50
Espania	%13	%30
Frantzia	%16	%30
Finlandia	%16	%50
Italia	%13	%30
Herbehereak	%21	%50
Erresuma batua	%17	%70
Suedia	%20	%80

1.taula: Kontratazio publikoa Europan

Iturria: Ihobe

Taulan ikus daiteke hasieran aipaturiko herrialdeez gain Herbehereak eta Erresuma Batua ere aitzindari izan zirela kontratazio publikoari dagokionez. Azken herrialde honek, Erresuma Batuak, 2006an dagoeneko argitaratu zuen Kontratazio Publiko Berdeko Plan Nazionala.

Ikerketa hauei esker agerian gelditu zen erosketa eta kontratazio publiko berdeak zuen garrantzia. Ondorioz, erosketa eta kontratazio publiko berdea gero eta indar handiagoarekin errotu zen ingurumen-politikan, batez ere teknologia garbiak, produktu eko-eraginkorrak, berrikuntza politika eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorreko produktuak lantzen zituztenetan. Horren adibide, Europar Batasunak 2006an Garapen Iraunkorrerako Estrategiaren Berrikuspenean (GIE EB) erosketa eta kontratazio publiko berderako helburu kuantitatiboak sartu izana berrikuntza politiko gisa. (Ihobe, 2010)

2007ko Europako merkatu liderren aldeko ekimenean sektore publikoa erosle potentzial handizat hartu zen sei merkatu liderretan, hauen ahalmen berritzaile gorakorragatik. Honela irtenbide berritzaile eta ingurumenarekiko jasangarriagoak kontratatuzera bultzatu zituzten sei merkatu lider horietako enpresak. Sei merkatu liderrak hauek ziren: e-Osasuna, eraikuntza iraunkorra, ehun teknikoak, produktu biologikoak, birziklapena eta energia berriztagarriak. (Ihobe, 2012)

2006an Erosketa Iraunkorrerako Marrakexeko Prozesuaren lantaldea sortu zen, Suitza zuela buru. Lantaldearen helburua, egoera politiko eta ekonomiko desberdinak kontuan hartuta, mundu osoko Estatuaren kontratazio publikoan ingurumen eta gizarte aldagaia sartzeko tresna malguak ezartzea zen.

Garapen hori sustatzeko, Europar Batasun osorako programak egiten hasi ziren, zeintzuen barruan, produktu eta zerbitzuen multzo jakin batzuk lehenetsi ziren kontrataziorako ingurumen-irizpideak landuz. Horrela, 2008ko hasieran, Europako Batzordeak 10 produkturen erosketan Europar Batasun osoan aplikatuko ziren ingurumen irizpide estandarizatuak ezarri zituen, ekoetiketekin, ingurumena kudeatzeko sistemekin eta zuzentarau espezifikoekin lotuta.

Europar Batasuneko kideak erosteko berdea sustatzeko prozesua garatzearekin batera, Europar Batasuneko kideak erosteko berdea bultzatzeko ekintza-planak ezartzen hasi dira. Horrela 2011rako herrialdeen % 80k gobernuak erosteko berdearen aldeko konpromisoak zituzten, 1.irudian ikus daitekeen bezala. Urdinez erosteko berdeko edo antzerako planen bat duten herrialdeak agertzen dira eta laranja horrelako plan bat garatzen zihardutenak. (Ihobe, 2012)



1.irudia. EKPB Europan 2011n

Iturria: IHOBE

5.3 Legedia

Erosketa eta kontratazio publiko berdeak gaur egungo egoera hobetzeko duen indarra ez da berria inorentzat. Gaur egun Europako Politika nagusienetan sartuta dago erabat. Hala ere, hau ez da horrela izan betidanik. Izan ere, nahiz eta 1997ko Europar Batasuneko Itunean erosteko publiko

berdea helburuetako bat bezala definitu zen, ez zen zehaztu irizpide berde hauek nola txertatu kontratazio publikoan.

Denbora luze batez egoerak bere horretan jarraitu zuen. Izan ere, zalantzak zeuden ingurumen irizpideak kontratazio pleguetan sartzeko aukeren eta egokitasunaren inguruan. Ez hori bakarrik, irizpide berde eta berri horiek sartzeko moduaren inguruan ere bai: kontratuaren objektuan, espezifikazio teknikoetan, kontratistaren hautaketan, esleipen irizpideetan eta gauzapenerako baldintza berezietan. (Ihobe, 2010)

Egoerak onera egin beharrean okerrera egin zuen. Hainbat helegite jarri ziren irizpide berdeak edo ingurumen-irizpideak kontratazio publikoan sartzearen kontra. Horrenbestez, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak ez zuen Europar Batasunean irizpide horiek nola sartu asmatzea besterik izan, hori bai zuzenbidea errespetatuz. Erabaki honen bi adibide nagusiak hauek dira: lehenengo eta nagusiki, 2002ko Helsinkiko busaren kasua, zeinean epaiak erabaki zuen erakunde esleitzailleak eskaintzarik onuragarriena hautatzerakoan posible zela irizpide ekologikoak kontuan hartzea. Bigarrenik, EVN AG eta Wienstrom GmbH enpresen eta Republik Österreichen arteko epaia. Hauek eta beste hainbat antzerakok etorkizunean presente egongo ziren ingurumen-irizpideen oinarria sortu zuten.

Egoera horrela zegoelarik, 2004an erosketa eta kontratazio publiko berdearen bi zuzentarau garatu ziren. Zuzentarau hauek azaltzen zuten nola txertatu zitezkeen ingurumen irizpideak kontratu publikoak, ordurarteko hutsunea betez:

- 2004/17/CE Zuzentaraua, 2004ko martxoaren 31koa, uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratuak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa.
- 2004/18/CE Zuzentaraua, 2004ko martxoaren 31koa, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa.

(Administración General del Estado, 2015)

Zuzentarau hauetan ingurumen asuntoak 46 eta 53 artikuluetan aurki daitezke, zeintzuek eskaintza "hoberena" aukeratzerakoan esleipen ingurumen-irizpideak kontuan har zitezkeela esaten zuten. 26garren artikulua lehenengo aldiz espresuki onartzen zuen ingurugiro-irizpideak txertatzeko aukera, esleipen objektibotasuna ezartzeaz gain. Azken honek, hautagai ezberdinen proposamenak objektiboki hautatzeko aukera ematen zuen, irizpide sozial eta

ingurumen irizpideei atentzio berezia ipiniz. 53garrenak, aldiz, aurretik aipatu diren sententzien jarraibideak ezartzen zituen. (Miranzo, 2017)

Zuzentarau hauek ikusi eta gero, esan daiteke ezaugarri hauek errespetatzen zituen ingurumen-irizpide orok balio zuela:

- Objetiboki ebaluagarria eta
- Kontratuaren objektiboari erlazionatuta egon behar da
- Lizitazioaren edo baldintza-agirien iragarkian behar bezala espezifikaturik egotea

(Administración General del Estado, 2015)

2004ko zuzentarau hauei beste hainbat legek jarraitu zioten:

- 30/2007 legea, Urriak 30ekoa, sektore publikoko kontratuena
- 31/2007 legea, Urriak 30ekoa, ur-, energia-, garraio- eta posta-sektoreetan jarduten duten entitateen kontratazioari buruzkoa.

Nahiz eta 2004ko zuzentarauak inflexio-puntu garrantzitsu bat ekarri zuen erosketa eta kontratazio publiko berdearen arauketan, 2014an erredaktatu ziren laugarren generazioko zuzentarau komunitarioen onartzeak eman zioten bultzakada handiena:

- 2014/24/UE Zuzentaraua, 2014ko Otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa.
- 2014/23/UE Zuzentaraua, 2014ko Otsailaren 26koa, kontzesio kontratuen esleipenari buruzkoa.
- 2014/25/UE Zuzentaraua, 2014ko Otsailaren 26koa, ur-, energia-, garraio- eta posta-sektoreetan jarduten duten entitateen kontratazioari buruzkoa.
- 2014/25/UE Zuzentaraua, 2014ko Apirilak 16koa, kontratazio publikoaren fakturazio elektronikoari buruzkoa.

(Administración General del Estado. 2015)

Zuzentarauak kontratazio publiko berdearen prozesuaren modernizazioa ekarri zuten, efizienteagoa eta sinpleagoa bilakatuz. Kontratazio Publikorako Zuzentaruaren erreforma honek indartu besterik ez du egiten erosketa eta kontratazio publiko estrategia politikorako tresna gisa garatuz.

Zuzentarau berri hauek enpresa txiki eta ertainak politika honetan sartzera bultzatzen du. Erreforma bizi-ziklo osoaren kostuak kontuan hartzeko aukera ematen du, bai barneko kostuak (erabiltzen ez diren produktuak

erabiltzeko, mantentzeko eta kudeatzeko kostuak), bai sortutako ingurumen-inpaktuei lotutako kanpoko kostuak (adibidez, berotegi-efektuko gasen emisioei lotutako kostuak sartzean).

Gainera lehenengo aldiz historian europar egoitzatik erregulatu daitezke kontratu publikoen prestakuntza zein esleipen faseak, baita exekuzio eta ebazpen faseak ere. Europar Batasuna erosketa eta kontratazio publiko berdean zentratu zenetik kontratuaren prestaketa fasea izan da ingurumen-irizpideak sartzeko aukera handiena eman duen momentua. Hala ere, eta seguru aski fase hau izateagatik irizpide hauek txertatzeko joera handiena zuena.

Zuzentarau hauek eko-etiketen esparruan ematen dute aldaketa handiena. 2004ko arautegiaren arabera autoritate publikoek zenbait eko-etiketa aipa zitzaketen, erreferentzia bezala, irizpide teknikoaren elaborazioan. Ordea, eskakizun teknikoak zehaztu behar zituzten nahiz eta hauek eko-etiketa izateak bermatzen zituenaren berdina izan. (Miranzo, 2017)

Egoera honek jurisprudentzia kantitate handi bat sortu zuen eta 2014/24/UE zuzentzarauen legegilea eko-etiketen erabilera zuzena onartzera eramane zuen, eta ez erreferentziaz soilik. Horrela, autoritateek etiketa bat eska dezakete obren, ondasunen edota zerbitzuen ezaugarri "berde" konkretu batzuen berme bezala. Edonola ere, etiketa partikular baten erabilerak ezin du ukatu erakunde esleitzailak eskakizunak betetzen dituztela konprobatzea. Azkenik, komeni litzateke aipatzea eko-etiketa hauen erabilera ez dagoela eskakizun teknikoari mugaturik, baizik eta 2014/24/UE zuzentzarauak aurreikusten du erabilera kontratuaren esleipen eta exekuzio fasera zabaltzea. (Miranzo, 2017)

Bestalde martxoak 14ko 163/2014 errege-dekretuan karbono-aztarnaren, erregistroa sortu zen karbono dioxidoa xurgatzeko proiektu batekin batera.

Azkenik, berriki, azaroaren 8an 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria argitaratu zen, eta azaroaren 9an indarrean jarri. Funtse publikoak arrazionaltasun ekonomiko handiagoaz erabiltzea bermatu nahi da, kontratazio publikoan gardentasun, osotasun eta irisgarritasun handiagoa egotea bilatzeaz gain, baita kalitate-prezio erlazio hobea egotea ere.

Azken xede hori lortze aldera, legeak lehenengo aldiz ezarri du kalitate handiko obrak, hornidurak eta zerbitzuak edukitzea ahalbidetuko duten esleipen-irizpideak diseinatzeko eta aplikatzeko betebeharra. Horretarako, kontratatzen diren ekipamenduen efizientzia eta jasangarritasuna hobetuko duten eta, aldi berean, estatuetakoa eta eskualdeetako politikekin lerrokatuta

egongo diren ingurumen- eta gizarte-irizpide berritzaileak sartu behar direla aipatzen du araudiak.

Ingurumen-inpaktuak balio ekonomiko bihurtzeko eta balio hori eskaintzen bizi-zikloko kostuen kalkuluan sartzeko aukera sartu du lehenengo aldiz.

Esleipenetan kalitate-prezio erlazioa ebaluatzeko ingurumen-alderdiak sartu dira irizpideen artean. Era berean, legeak ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak eskatzen dizkie enpresa lizitzaileei, ingurumen-babesaren eremuan lan ona egiten dutela egiaztatzeko.

(Ihobe, 2018)

5.4 Onurak

Lehen aipatu den bezala erosketa eta kontratazio publiko berdearen *stakeholdersak* edo aktoreak administrazioa, sektore pribatua edo enpresak eta gizartea dira, 2.irudiak argi azaltzen duen bezala:



2.irudia. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen aktoreak

Iturria: Ihobe

Kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak aplikatzeak, ingurumen-onurak ez ezik, onura ekonomikoak eta sozialak ere ekartzen dizkie administrazioari, sektore pribatuari eta gizarteari.

Administrazio publikoa ondorio zuzenak jasotzen dituena da, prozesu honen bultzatzaile den momentutik. Izan ere, aurrezki ekonomikoa lortzen du baliabideak murriztuz. Are gehiago, eskualdearen hazkundera ematen da

bertako enpresen garapenagatik. Administrazio publikoaren beraren itxuraren hobetze kontsideragarria ematen da, besteentzat eredugarri izanez.

Sektore pribatua edo **enpresak** dira administrazioek eskatzen dituzten produktu berdeak ekoizten edo eskatutako zerbitzu berdeak ematen dituztenak. Horrela, bereizmen estrategia honekin enpresa merkatu lehiakor eta berritzaile baten sartzen da, enpresan hazkunde bat emanez eskariaren hazkuntzagatik. Jendeak enpresarekiko duen iritzi edo aurreiritzia eta ospea ere hobetzen da ingurumena gutxiago kutsatzeagatik.

Azkenik, **gizartea** da prozesu horretan onura gehien izango dituen eragilea. Izan ere, ingurumenean emango diren hobekuntzak zuzenean jasoko ditu, herritarren bizi kalitatea hobetuz. Bestalde, herritarrak bermatuko dute euren dirua, diru publikoa, arduraz erabiliko dela.

Alor ezberdinetan sortzen ditu gainera onurak erosketa eta kontratazio publiko berdeak.

Alor ekonomikoan:

- Administrazioan: bizi zikloaren kostuen kalkulu eraginkorra egiteak aurrezki ekonomikoa sortzen duela ikustea ahalbidetzen du, erabilitako baliabideak murriztuz. Erosketa gastutik haratagoko ikuspegiak eros ahalmena eraginkortasun handiagoarekin erabiltzen laguntzen du. Hau argi ikusten da energia kontsumitzen duten gailuetan.
- Sektore pribatuari: ingurumena errespetatzeko irizpideak jartzea produktu/zerbitzuetan pizgarri bat da enpresak merkatu berritzaile eta lehiakor batean sar daitezela. Honek, lehiakortasunaren handitzea dakar, irabazi ekonomikoekin batera.

Gizarte alorrean:

- Gizartean: erosketa berdeak ingurumena gutxiago kutsatuz herritarren bizi kalitatea hobetzen dela argi dago. Bestalde, enpresak produktu eta zerbitzu berri eta eraginkorrekin hazten diren bitartean tokiko ekonomia sendotu besterik ez dute egiten. Eskari berri eta handiago hau asetzeko pertsonal gehiagoren beharra dago eta beraz enplegua sortzen da.
- Administrazioan: ingurumen-inpaktu txikiagoko produktuak sortzeak administrazio publikoko langileen bizi kalitatea hobetzen du.

Ingurumen alorrean:

- Administrazioan: lokalki, nazionalki edo internazionalki zehaztutako ingurune-helburuak betetzen laguntzen du erosketa berdeak. Bestalde, produktu jakin batzuk sortzerako orduan ingurumen-inpaktua murriztea ere lortzen du.
- Gizartea: ingurumen-inpaktuan murrizketa bat ematearen ondorio onuragarri nagusiak jasango ditu gizarteak.

Alor politikoetan:

- Administrazioan eta sektore pribatuan: bi eragile hauek ingurumenaren babesean parte hartzeak euren irudi publikoa hobetzea lortzen dute gardentasuna eta eraginkortasuna irabaziz, eredugarri bilakatuz besteentzako.

(Ihobe, 2014)

5.5 Erosketa eta kontratazio publiko berdearen oztopoak

Gaur egun, nahiz eta erosketa eta kontratazio publiko berdeak hobetzeko joera duen eta hartu duen indarra ikaragarria den, badago oraindik metodo eraginkor eta aurrerakoi bezala onartzen ez duenik, hori bai, denborarekin gutxitzen joan direnak. Honen adibide argi eta nabarmen, 2016ko uztailean Merkatuen eta kompetentziaren komisio Nazionalak aurkeztu zuen IPN/CNMC/010/15 txostena. Bertan Europar politikak markaturiko lerro nagusiekin eta doktrina nagusiarekin duten desadostasuna azaltzen dute, kontratazio publikoa instrumentu desegokitzat hartuz ingurumen helburuak eta helburu sozialak betearazteko. Beste medio batzuk egokiagoak direla esaten da, onartuagoak eta kompetentziagatik gutxiago distortsionatuak, salbuespen fiskalak eta aldakuntza arautzaileak. (Miranzo, 2017)

Are gehiago, goian aipaturiko kasua ez da kasu isolatu bat, baizik eta erosketa eta kontratazio publiko berdearen kontrako iritzi bat gehiago soilik. Politika honen ezarpenak zailtasun batzuk izan ditu. Lehenik eta behin eta nagusiki, erosketa eta kontratazio publiko berdeak dakartzan onura ekonomikoen ezjakintasuna eta kostuen magnitudearen pertzepzio okerra. Prezio baxuena izan da orain arteko aukeraketan pisu handiena zuen magnitudea, eta askotan bakarra. Prestakuntza ekoefizienteak dakartzan kostu operazionalen murrizketak (ur eta energiaren kontsumo txikiagoa, etab.) erosketa kostu handiagoak konpentsa ditzakete kasu batzuetan, kontsumo baxuko ibilgailuen erosketan eta eraikuntza publikoetako sistema ekoefizientedun berokuntzaren kasuetan eman daitekeen bezala adibidez. Hau horrela izan dadin beharrezkoa izan da azentua jartzea kontratazio organoak

formatzean jartzea, baita prestazio, produktu edo obren bizitza ziklo osoan zeharreko kostuen analisisa bezalako metodologietan ere.

Ingurune irizpideen integrazioa ezinbesteko elementua da merkatu publiko arduratsu bat eraikitzeke orduan, ingurune kostuak internalizatzen ez dituzten enpresak baztertuz, komunitatearen ingurumen babeserako estandar legalak edota kontratazio organoak berak ezarritako baldintza-agiriak ez betetzeagatik.

Erosketa eta kontratazio publiko berdearen garapenak izan duen bigarren muga edo arazoa kontratazio prozeduretan ingurumen klausula eta irizpideak txertatzeko orduan egon den argitasun juridiko falta izan da. Argitasun falta honek kontratazio organoak atzera botatzea ekarri du, berdintasun eta ez diskriminazio printzipioak urratuko dituzten adjudikazio erabakien hartzean edota kontratuzko klausulapean erortzeko beldurragatik. Erosketa publiko berdearen prozesuetan nahaste teknikoak ematen ziren produktu bat ingurumenarekiko errespetagarria zen edo ez azaltzerakoan. Aipatzekoa, 2014ko zuzentarauak arazo hauek konpondu zituela esan daitekeela.

Hirugarrenik, egon den beste oztopo bat erosketa eta kontratazio publiko berdearen inguruko informazio eta erreminta falta izan dira, formazio eta ezagutza estruktura ezegoki eta aplikatzeko errazak diren irizpideen falta. Metodologia eta ezagutza gabezia garrantzitsuak egon dira produktuen bizitza ziklo eta kanpokotasunen kostuen kalkulu arloan. Balorazio denbora luzeak eta metodologia eta informazio falta ingurumen aldagaia erosketa publikoetan sartzeko orduan oztopoak besterik ez dira izan. Ez du laguntzen ere informazio eta esperientzia ezberdinak partekatzea sustatu ez izanak. Alor honetan ordea lan handia egin da. Horra hor Ihobe erakundeak egin duen lana EAEn. (Pernas, 2011)

Bestalde, Europar Komisioak esan zuen Europar Batasuneko leku ezberdinetan eman diren irizpideen edota erosketa berdeko klausulen eta prozeduren arteko ezberdintasunak, kostu administratiboen hazkuntza ekarri zuela, batez ere PYMEentzako eta barne merkatua oztopatzen zuela. Horregatik, konkurrentzia lehiakorraren eta helburu sozialen arteko oreka bermatzeko elementu gakoa da adjudikazio botereetarako erreferentziazko europar irizpide komunak aurreikustea.

Azkenik, sostengu politikoa ez da nahikoa izan orain dela ez asko arte, xede honetara bideratutako errekurtsioen bolumena horren handia ez izatea ekarri duena. Danimarka bezalako erosketa eta kontratazio publiko berdean

eredu diren herrialde esperientziak argi erakusten dute euskarri hau beharrezko elementua dela. (Foy, 2011)

5.6 Antzeko filosofia eta politikak

5.6.1 Antzeko filosofiak

Erosketa eta kontratazio publikoaren antzeko hainbat filosofia daude indarrean gaur egun. Esaterako, **Ekonomia zirkularra**. Egungo modelo ekonomikoa lineala da, “hartu-fabrikatu-kontsumitu-baztertu” printzipioa jarraitzen duena eta ingurumenarekiko kaltegarria dena. Baliabideen urritasunak etengabe erabili ezina dakar. Ekonomia zirkular honek ekonomia linealarekin amaitzea du helburutzat.

Ekonomia zirkularra eredu ekonomiko berritzaile bat da, zeinean erabilgarri dauden baliabideak maximizatzen diren. Produktu, zerbitzu, hondakin, material, ur eta energiaren «bizitza-zikloa» ixtearen printzipioa dauka oinarritzat, ziklo produktiboan ahalik eta denbora gehien egotea. Epe luzera gizartearen oparotasuna du xedetzat. Zaborraren eraketa ahal den neurrian saihestu eta saihestu ezin den kasuan ahalik eta gehien aprobetxatzean datza. Horrela, lehengaiak erauzi, produktuak ekoiztu eta erabileraren ondorioz sortzen den zaborretik ondoren berrerabiliko diren substantzia eta lehengaiak berreskuratuko dira gizakiarekiko eta ingurumenarekiko modu seguru eta osasuntsu batean. (Administración General del Estado, 2015)

Horrela, lehengaien kostu eta fluktuazio eskasen testuinguru batean, ekonomia zirkular berriak horniduren segurtasun eta hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratu baten alde egiten du, enplegu berriak sortzen lagunduz, tokiko enpleguari eta deslokalizatzeko zailak direnei garrantzia emanez (Ihobe, 2016c). Gainera, herrialdeetan ekoizpena bideratzen laguntzen dute eta lehiakortasun arloan abantaila handi bat lortzen da globalizazioaren testuinguruan.

Administrazio publikoak baliabideen kontsumitzaile oso garrantzitsuak dira. Europar Batasunaren hainbat planek onartzen dute erosketa eta kontratazio publiko berdea faktore gako bezala ekonomia zirkular bat lortzeko, beste hainbaten artean. Hortaz, hauen erosketa boterea bideratu daiteke kontratazio zirkular baterantz. Kontratazio zirkularra honela defini daiteke: autoritate publikoen ondasun zein zerbitzuen erosketa, ondasunen eta energiaren zirkuluen begizta ixteko asmoz egiten dena, ingurumena zainduz eta zaborraren sorkuntza ekidinez.

Aipagarria den beste tresna bat **Bizi zikloaren analisia** da. Produktu edo zerbitzu batek bere bizitza osoan zehar ingurumenarekiko duen jarrera aztertzeke metodoa da, bizi zikloko fase guztiak aztertzen dituelarik, orokorrean: diseinua, ekoizpena, garraioa, erabiltzea eta bizitza amaiera (berrerabiltzea, birziklatzea, balorazioa eta zaborretara botatzea). ISO 14040 Arauak erregulatzen du bizi zikloaren analisia.

Hortaz tresna hau produktu baten eta honen produkzio prozesuaren bizi zikloa aztertzeke erabiltzen da bere bizitza guztian ingurumenean sor dezakeen inpaktua ebaluatzeke asmoz. Kalkulu hau produktuari erlacionatutako baliabide- (energia, lehengaiak, ura...) eta ingurumen-emisioak (irteerako ur, aire, etab.) kuantifikatzen egiten da.

Bizi zikloaren analisiak zera ahalbidetzen du, bere bizi ziklo osoan sortuko dituen kostuak kalkulatu kostu totala kalkulatu. Izan ere, honako fase hauetako bakoitzean produktuak kostuak sortzen ditu produktu edo zerbitzua sortzea/diseinatzea, fabrikatzea, banatzea, erabiltzea, mantentzea eta baliagarri izateari uztea. Hortaz metodo honek erosketak prezioetik haratago joatea baimentzen du.

Oro har, balio-bizitza luzea duten produktuetan eta erabiltzen diren bitartean kontsumoak eragiten dituzten produktuetan, kostuetan adierazgarriena ez da eroste-kostua izaten; alderantziz: askotan, garrantzi gutxieneke kostua izaten da hori (Ihobe, 2016b). Izan ere beheke 3.irudian ikus daitezkeenez hainbat kostu daude erosketak kostuaz gain batzuetan begiratzen ez direnak.



3.irudia.Produktuen kostu ezberdinen irudi grafikoa

Iturria: Ihobe

Bizi-zikloaren kostu osoko kostua aplikatzeak onurak ekar ditzake erosketa eta kontratazio publiko berdeari. Irizpide hauek noiz erabili erabakitzeke, kontratuaren xedea eta eskuratu nahi dugun produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriak hartu beharko dira kontuan. Nolanahi ere, arau orokor gisa bizi zikloaren analisia egitea komeni da hurrengo kasuetan: produktu edo zerbitzuak erabiltzean eragiten diren kostuak (energia, kontsumigarriak, mantentzea/konpontzea/ordeztea) eta deuseztatze-kostuak oso handiak direnean, eroste-prezioarekin alderatuta. Baita balio-bizitza luzea duten produktuei eta balio-bizitzaren amaieran hondakin ugari edo arriskutsuak sortzen dituztenei ere (Ihobe, 2016b).

Bizitza zikloaren analisia kontratazio publikoan aplikatu beharreko faseari dagokionez aukera bat baino gehiago dago:

- Baldintzen agiria prestatzeko fasean beharrak hobeto zehazteko, eta eroste aukera onena aukeratzeko.
- Esleipen-fasean, produktuen eta zerbitzuen eskaintza ekonomikoak konparatzeko.
- Esleipenaren osteko fasean, egindako aukeraketak ekarri dituen onurak ebaluatzeko.

5.6.2 Antzeko politikak

Bestalde, EAEn erosketa eta kontratazio publikoarekin batera, honekin erlazionaturik dauden hainbat politika daude martxan. Adibide argia da **Agenda 21**. Nazio Batuek garapen iraunkorra eusteko sortutako programa da, duela zenbait urte martxan jarri zena EAEn, 2003.urte inguruan. Agenda 21ek tokiko iraunkortasuneranzko trantsizioa bilatzen du. Garapen iraunkorraren printzipioetan oinarritutako prozesua da eta, bizi-kalitatea hobetuko duen oreka lortze aldera, justizia soziala, ekonomia iraunkorra, hiri-ingurunea eta kapital natural iraunkorra uztartu nahi ditu.

Ingurumenari eta Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentzian du jatorria Tokiko Agenda 21ak. Konferentzia horri “Lurraren goibiler” ere deitu zitzaion eta 1992an ospatu zen, Rio de Janeiron.

Hiru dira Agenda 21 programaren oinarri nagusiak: ingurumenaren integrazioa, herritarren parte-hartzea eta prozesuaren jarraipena. Hauei erantzuteko prozedurak antolatu dituzte gobernuek, herritar guztien parte-hartzea ezinbestekotzat hartuz.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak bultzatu du programa EAEn, lehenik udalerrri batzuetan aplikatuz eta hemendik ateratako esperientzia baliatuz beste udalerrri batzuetara zabalduz. Lehen programa hauek jasangarritasunaren inguruko gaiak jorratzen zituzten, ingurunea babesteko asmoa zuten lehen programa hauek.

Ofizialki, lehen programa hauek 2002an sortu zen Udalsarea 21 sareko kide diren udalen artean 16tan egin ziren, hiru Araban, zortzi Gipuzkoan eta bost Bizkaian.

Herri hauetatik jasotako eskarmentuarekin eta abiapuntu ezberdinarekin, estrategia ezberdina ezarri zen aurrekoenaren aldean. Eskualdeka bildu ziren taldeak plana elkarrekin garatzeko. Izan ere, ingurune berdineko herriek parte diren lurralde horretako arazoei egi behar zieten aurre, taldeka aurre eginez. Gainera, taldeak kide guztientzako, baita txikientzako ere, baliabideak eskaini zitzakeen. (Kortabarria, 2003)

Aipatzekoa ere **EAEko Ingurumen Esparru Programa (IEP) 2020**. Erantzunkidetasunean oinarrituz Euskadi jasangarri bat du helburu, gizarte zibilari, sare ekonomikoari eta Administrazioari esker lortuko dena elkarlanean. Ingurumen-politika honek ingurumenaren hobekuntzetan aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzeko eskaintzen dituen aukera ekonomikoak eta sozialak aprobetxatzea ahalbidetzen du. IV. IEPk 2020. urtea markatzen du denbora-muga gisa, ingurumenaren alorreko Europako erreferentzia printzipalekin lerrokatzeko.

Programa hau Ingurumen Esparru Programen segidako IV. Ingurumen programa da. Lehenengoa, 2002-2006 urteetako, bigarrena 2007-2010 urteetako, eta hirugarrena 2011-2014 urteetako.

2015-2020 aldirako IEP «Euskadi 2020, giza garapena eta hazkunde jasangarria» proiektua eratzen duten 14 plan estrategikoetako bat da eta haren hiru ardatzetatik lehenengoa txertatzen da: Hazkunde Jasangarria.

IV. IEPk lotura bikoitza du Eusko Jaurlaritzaren gainerako plangintza estrategikoarekin. Batetik, hazkunde jasangarriaren egindako apustuaren oinarria da, eta enplegua eta jarduera ekonomikoa suspertzeko iturri bezala ikusten da ingurumena. Baita enpresa berritzaileen, pertsona ekintzaileen eta enplegu berdearen garrantzi handiko harrobi gisa ere. Bestalde modu erabakigarrian laguntzen dio giza garapenari. Inguruneak osasunean eragina duela argi dago, bai zuzenean zein zeharka eta beraz hau zaindu beharra dago.

Azken batean, 2020rako Ingurumen Esparru Programa honek:

- Euskadik aurrez aurre dituen ingurumen-erronka berriak deskribatzen ditu
- 2020rako helburu eta jarduketa nagusiak finkatzen ditu
- Administrazioari, herritarrei eta enpresei, ingurumenaren arloko aukerei buruz beharrezkoak diren argitasuna eta aurreikuspenak eskaintzen dizkie

Programa honetan 6 helburu estrategiko zehazten dira Euskadik 2020an okupatu nahi duen tokia definitzen dutenak. Hona hemen 6 helburuak:

1. helburu estrategikoa: Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gordetzeko.
2. helburu estrategikoa: Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea.
3. helburu estrategikoa: Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.
4. helburu estrategikoa: Lurraldearen jasangarritasuna handitzea.
5. helburu estrategikoa: Politiken koherentzia bermatzea ingurumen-integrazioa areagotuz.
6. helburu estrategikoa: Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea.

(Eusko Jaurlaritza, 2014)

6- EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN EGOERA EAEN

Erosketa eta kontratazio publiko berdea Euskal Autonomia Erkidegoan aztertu behar denez merezi du lehenik laburki Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera deskribatzea, bai egoera sozioekonomikoa bai industriaren garrantzia.

6.1 EAEren ezaugarri nagusiak

Lehenik eta behin datu ekonomiko orokor batzuk emango dira Eustat eta INEk emanda:

- Euskal Autonomia Erkidegoak 7.234km²-ko azalera dauka, Espainia osoaren %1,43 eta 2.168.254 pertsonako biztanleria zuen 2017ko uztailaren 1ean kalkulatua, Espainiaren %4,68.
- 158.086 enpresa zeuden kokatuta Euskal Autonomia Erkidegoan 2017an

- 874.241 langile zeuden 2017an
- 2018ko lehenengo hiruhilabeteko langabezia tasa %11,3koa zen
- 2017ko Barne Produktu Gordina 71.743M.€milioikoa zen, Espainiaren %6,16
- Urteko Barne Produktu Gordinaren hazkuntza %3,1ekoa zen 2017an
- 2017ko Barne Produktu Gordina per capita: 33.088€, Estatuaren batez bestekoa baino %32,3 gehiago (Eustat, Ine).

Euskal ekonomia orokorrean eta bere sektore produktiboak partikularki, iraganari tinko loturik daude oraindik, urteetan zehar jasandako aldaketak ugariak izan diren arren. Gaur egun ere, XIX mendearen amaieran eta XX mendearen hasieran altzairuaren inguruan jasandako garapen industrialaren arrastoa sumatzen da nahiz eta XX mendean zehar azken hamarkadetan eman den birmoldaketa prozesu garrantzitsuak eman ziren, batez ere altzairu eta ontzigintza sektoreetan.

Hala ere, tertziarizazio garrantzitsua jazo den arren, euskal ekonomian industriak duen garrantzia esanguratsua izaten jarraitzen du, beste eskualde batzuetan eta Espainia eta Europako batz bestekoa baino dezente handiagoa (Eustat). 2014an EAEren BPGa Estatu Espainiarraren %6,11koa zen bitartean, euskal industria Espainia osoaren industriaren %8,48koa zen.

2.taulan *Industria eta Energiaren* kontribuzioa EAEren BPGean %24aren inguruan oszilatzen duela ikus daiteke azken urteotan, zerbitzuen sektorea izanik ekarpen nagusia egiten duena %65 eta %70 bitarteko balioekin.

SEKTOREA	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	0,73	0,72	0,85	0,86	0,78	0,83
Industria eta energia	23,68	24,86	24,20	23,93	23,80	23,95
Eraikuntza	8,85	7,74	6,98	6,53	6,31	6,16
Zerbitzuak	66,74	66,68	67,97	68,68	69,12	69,06

2.taula: EAEren BPG sektoreka(%)

Iturria: Eustat

Hala ere, zerbitzuen sektorea *Industriarako zerbitzuak* eta *Kontsumorako zerbitzuetan* banatuz gero ondorioa gehigarri bat egin daiteke. Industria tradizionalak eta produkziara orientatutako zerbitzuak biak batuta EAEn BPGaren %68a suposatu zuten 2010ean. Datu hau Europako batez bestekoa, %66, eta Espainiako batez bestekoa, %56, baino pixka bat handiagoa izan zen.

Bestalde, enpleguak BPGaren antzeko jokaera erakusten du ondorengo 3.taulan ikusten den bezala, *Industria eta Energia* sektoreetarako %20 inguru eta *Zerbitzuentzako* %70 ingururekin.

SEKTOREA	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	2,07	1,94	2,03	2,03	1,97	1,90
Industria eta energia	21,12	20,82	20,41	20,13	19,71	19,34
Eraikuntza	8,28	7,54	6,95	6,38	6,11	5,98
Zerbitzuak	68,52	69,70	70,61	71,46	72,20	72,78

3.taula: Enplegua EAEn sektoreka(%)

Iturria: Eustat

BGGarekin egin dena enpleguarekin eginez gero, industria tradizionalaren enpleguei industriara bideratutako zerbitzuen enpleguak batuz gero, emaitza hauxe da, 2010ean biak batuta 563.000 pertsonari eman zitzaiola lana, EAeko langileen %57,3.

Aurretik esan den bezala, industriak inguruko eskualdeetan baino pisu espezifikoa handiagoa du EAEn. Ondorengo 4.taulan ikus daitekeen bezala, 2014an industria sektoreak EAeko BPGaren %21,5 suposatzen zuen. Europar Batasunaren batez bestekoarekin, %17,1, eta Espainiarekin, 15,5, alderatuz pisu handia erakusten du industriak EAEn, hala ere, Alemaniaren zifretara heldu gabe, 23,1 (Eustat)

	2010	2011	2012	2013	2014
EAE	22,5	22,6	22,1	21,7	21,5
Espainia	15,7	16,00	15,80	15,60	15,50
Alemania	23,3	23,5	23,6	23,2	23,1
Europar Batasuna	17,3	17,5	17,4	17,3	17,1

4.taula: Industriaren BPG, BPG totalarekiko (%)

Iturria: Eustat

Enpleguak antzeko jokabidea erakusten du ondorengo 5.taulan adierazten den bezala. EAEko industriaren enplegu proportzioa Espainiarena eta Europar Batasunarena baino nabarmenki handiagoa da.

	2010	2011	2012	2013	2014
EAE	21,9	21,6	21,2	20,9	20,3
Espainia	13,0	12,9	12,7	12,5	12,5
Europar Batasuna	15,8	15,9	15,8	15,7	15,6

5.taula: Industriaren enplegua, enplegu totalarekiko (%)


Iturria: Eustat, INE, Eurostat

6.2 EAEn sektore publikoaren analisia

Euskal Administrazio Publikoa Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek osatzen dute.

Eusko jaurlaritza da Euskal Autonomia Erkidegoan gobernatzen duena. Egoitza nagusia Arabako hiriburuan, Gasteizen, du eta honen kontrola daraman erakundeari edo parlamentuari Eusko Legebiltzarra deritzo.

EAEko sektore publikoaren egitura dagokionez 12 sail ezberdinetan banatzen da, ondorengo 1.grafikoan azalduko den bezala:



Grafikoa 1: Eusko jaurlaritzaren sailak

Iturria: Propioa

Sail hauen barnean hainbat erakunde ditu Eusko Jaurlaritzak:

- Lehendakaritza
 - Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzia
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua
 - Itelazpi, S.A.
 - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE)

- Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
 - Energiaren Euskal Erakundea (EEE/EVE)
 - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.
 - Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, S.A
 - Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B. (NEIKER)
 - HAZI Fundazioa
 - ELIKA -Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa - Fundación Vasca para la Seguridad Alimentaria
 - Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea
 - Eusko Trenbideak, S.A. (E.T.)
 - Euskadiko Kirol Portua, S.A.
 - Zumaia Kirol Portua, S.A.
 - Burnibidearen Euskal Museoaren Fundazioa
- Hezkuntza
 - Centro Superior de Música del País Vasco - Musikene
 - Haurreskolak
 - Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia- Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco
- Ogasuna eta Ekonomia
 - Finantzen Euskal Institutua
- Kultura eta Hizkuntza Politika
 - Euskal Irrati Telebista (EITB)
 - Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutoa / Basque Institute
 - Euskadiko Orkestra, A.B. / Orquesta de Euskadi, S.A.
 - Fundación Euskadi Kirola Fundazioa
 - Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria - Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa
- Osasuna
 - Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzua
 - Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna / B+I+O Euskal Fundazioa
- Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza
 - Uraren Euskal Agentzia
 - Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe, S.A.
 - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (VISESA)
 - Alokabide, S.A.
- Beste erakunde publiko batzuk
 - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
 - Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa
 - Lan Harremanen Kontseilua

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua

Eusko Jaurlaritzaren autonomiadun erakundeei dagokienez ondoren aipatzen dira garrantzitsuenak:

- Emakunde: Emakumearen Euskal Erakundea
- EUSTAT: Euskal Estatistika Erakundea
- Gogora Institutua: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua
- HABE: Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea
- IVAP: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
- Kontsumobide: Kontsumoko Euskal Institutua
- Lanbide: Euskal Enplegu Zerbitzua
- Osakidetza: Euskal Osasun Zerbitzua
- Osalan: Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
- Polizia eta Larrialdietako Akademia

Foru aldindiak, aldiz, hiru dira: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia. Udalerrriak ordea 251 dira erkidegoan, horietatik 51 Araban, 88 Gipuzkoan eta 112 Bizkaian. Bestalde langileei dagokienez ondorengo 6.taulan agertzen da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren langile kopurua 2016an:

	LANGILEAK GUZTIRA
Eusko Jaurlaritza	86.406
-Eusko Jaurlaritza: Administrazio Orokorra	44.241
-Eusko Jaurlaritza: Organismo autonomoak, Izakiak eta Sozietate Publikoak	42.165
Foru-aldundiak	10.387
-Foru-aldundiak: Administrazio Orokorra	8.473
-Foru-aldundiak: Organismo autonomoak, Izakiak eta Sozietate Publikoak	1.914
Tokiko izakundeak	25.792
-Tokiko izakundeak: Administrazio Orokorra	21.037
-Tokiko izakundeak: Organismo autonomoak, Izakiak eta Sozietate Publikoak	4.755
Fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	2.587
Beste erakunde publiko batzuk	372
Unibertsitatea	6.429
Guztira	131.973
-Administrazio Orokorra	73.751
-Erakunde autonomo, Ente eta Sozietate Publikoak	58.222


6.taula: Pertsona enpleguak Euskal Administrazioetan

Iturria: Eustat

Ez da erraza herrialde batean sektore publikoak duen indarra neurtzea. Euskal Autonomia Erkidegoan ez dute soilik EAEko administrazioak eta EAEko Sektore Publikoak Jarduten, Estatuaren Administrazio Orokorraren organo periferikoek, Foru Administrazioak, Toki Administrazioak eta haien mendeko erakundeek ere jarduten dute. Hala ere, sektore publikoaren azterketa egiterakoan soilik EAEko Sektore Publikoko datuak hartzen dira.


EAEko Sektore Publikoaren adierazleak gure inguruko autonomia-erkidegoetako eta europakoekin alderatzen baditugu ondoriozta daiteke Euskal Administrazio Publikoa ez dagoela hipertrofiatuta; aitzitik, Euskal Herriko jardura ekonomiko osoarekiko duen pisu erlatiboari dagokionez, arrazoizko tamaina du. Horrela, kontsumo publikoko gastuan, balio erantsia/BPGd ratioan edota 1.000 biztanleko enplegatutako pertsona-kopuruan erkidegoetako eta Europako batezbestekoen azpitik kokatzen da EAEko Administrazio Publikoa.

Sektore publikoak gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan duen garrantzia ikusteko Eusko Jaurlaritzaren gaustu-aurrekontuaren eboluzioa aztertu da ondorengo 2.grafikoan, eta gastu-aurrekontu aldaketa eta BPG aldaketa alderatzen dituen grafikoa ere egin da.



Grafikoa 2: Eusko Jaurlaritzaren gastu-aurrekontua

Iturria: Propioa



Grafikoa 3: Eusko Jaurlaritzaren gastu-aurrekontu eta BPG aldaketa

Iturria: Propioa

Bi grafiko hauetan ikus daiteke nola egin duen gora sektore publikoaren gastu-aurrekontuak urteak pasa ahala. Are gehiago, proportzioan Barne Produktu Gordina baino gehiago hasi da grafikoan ikus daitekeen bezala. Honek argi uzten du sektore publikoaren indarra Euskal Autonomia Erkidegoan.

(Eusko Jaurlaritza, 2013)

6.3 EAEren ingurumen egitura eta politikak

Erosketa eta kontratazio publiko berdea ingurumenarekin erlazionaturiko politika bat den momentutik komenigarria da antzeko izaera duten beste politika batzuk aipatzea. Baita, Euskal Autonomia Erkidegoak politika hauek kudeatzeko dituen egitura ezberdinak ere.

6.3.1 Ingurumen egiturak

Ingurumen egiturak ugariak eta nortasun ezberdinekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan daudenak. Hala ere, ondorengo lerroetan garrantzitsuenak aipatuko dira: Ihobe, Azti eta Basque Ecodesign Center.

IHOBE

Ezin da erosketa eta kontratazio publikoari buruzko lan bat egin lhobe-ri aipamen berezirik egin gabe. Orain arte sarri azaldu den kontzeptua da eta oraindik ere agertuko da seguru. Ingurumen Sailburuordetzak kudeatzen duen sozietate publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuari jarraiki.

Helburu nagusitzat Eusko Jaurlaritzari laguntza ematea du Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika garatzen eta ingurumen-jasangarritasunaren kultura hedatzen joan daitezen.

lhoberen egoitza soziala bilbon kokatzen da, eta bere jarduketa-esparrua ez doa EAEz haratago. Gainera, Busturiako Ekoetxea Urdaibai ere kudeatzen du.

Hasiera batean ingurumen-azpiegiturak sustatzeko erakunde gisa sortu zen eta 30 urtez arlo ezberdinetan gogor jardunean egon ostean, ingurumen-kudeaketa eta -babesaren esparruetan sendotu da lhobe. Ingurumen-politika aplikatzeko ezinbesteko tresna da gaur egun Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarentzat. Hala, EAEko erreferentziazko ingurumen-erakunde den Ingurumen Sailburuordetzaren zuzendaritzekin koordinatuta aurrera eramaten du lan hori.

lhobek gaur egun jarduten duen esparruen artean daude airea, lurzoruak, hondakinak, ingurune naturala eta enpresak esaterako. Honetaz gain, lhobek Ingurumen Sailburuordetzari babesa ematen dio, erakunde ezberdinekin lanean hainbat proiektu estrategiko garatzeko. Ingurumen-plangintzan, klima-aldaketan, nazioarteko lankidetzan eta erosketa arduratsuaren inguruko bestelako proiektuetan ere hartzen du esku.

Azken honen haritik, azpimarratzekoa lhoberen papera erosketa eta kontratazio publiko berdeak EAEn izan duen hazkuntzan. Izan ere erakunde honen, lhoberen, eskutik etorri dira da EAEn egin diren erosketa eta kontratazio publikoaren programa nagusiak, hala nola, 2011-2014rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen lehenengo Programa edo 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa. Programa hauen eta beste hainbatez aparte, lhobe erosketa eta kontratazio publiko berdearen gaineko informazioa zabaltzeaz, kontzientziazioaz, kudeaketaz, partaide potentzialekin harremanak izateaz eta programa honek EAEn funtziona dezan egin beharreko ekintzez arduratzen da.

(lhobe)

AZTI

1981ean sortu zen Euskal Herriko irabazasmorik gabeko fundazioa da, Tecnaliarena den zentro teknologikoa bat da. Arrantzako eta elikadurako sektorearen garapen sozial eta ekonomikoarekin nahiz itsasoko ingurumenaren eta baliabideen zaintzarekin konprometitua dago.

Azpiegitura eta ekipamendu teknologiko propioak ditu. 5.000 m²-tik gorako eremua osatzen duten bi egoitza ditu, baita zortzi laborategi espezializatu, planta pilotua, ekipamenduak eta itsasontzi ozeanografikoa ere. 2.000 proiektu baino gehiago egin ditu enpresentzat, instituzioentzat eta administrazio publikoentzat, eta 10.000 laborategi zerbitzu zein zerbitzu teknologiko eman ditu. (Udalaitz, 2004).

Hiru arlotan dago espezializatua: ozeanografian eta itsasoko ingurumenean, arrantzako baliabideetan eta elikagaien teknologian. Horrela, elikagai-sektoreko enpresei, elikagai-sektoreko asoziazioei eta administrazio publikoei elikagai berrien ekodiseinuan laguntzen die, erreminta informatiko berriak garatzen karbono aztarna eta ur-aztarna bezalako ingurumen-adierazleak eskuratzeko. (Basañez, 2017)

BASQUE ECODESIGN CENTER

Ekodiseinuaren materialen ahalmen handia duten euskal enpresa industrialen hornikuntza katearen gaineko trakziorako sortu zen plataforma publiko pribatua.

2011n sortu zen ltoberen eskutik, eta lhobek bultzatuta eta koordinatuta funtzionatzen du. Proiektu honetara hainbat enpresa batu ziren Iberdrola edo Ormazabal esaterako. Dimentsio ikaragarriak lortu ditu, baita fakturatzeko orduan ere.

Helburu bezala, EAEn ekodiseinuaren arloan erreferentzia izatea, lehiakortasuna bultzatzea, ekoberikuntza sustatzea eta ingurumen faktorea hornikuntza katean sartzea ditu.

(Basañez, 2017)

6.3.2 Ingurumen politikak EAEn

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politikak bere ibilbidea 1979an hasi zuen Gernikako estatutuarekin, zeinean materia honetako kompetentziak batu ziren beste batzuekin batera. Hala ere, 90.hamarkada bukaera arte ez zuen Eusko

Jaurlaritzak gaur egun ulertzen dugun bezalako politikarik zein programarik garatu ez inposatu.

Honen erakusle 1998an onartu zen 3/1998 LEGEA, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, ingurumen politiketan garapen jasangarri baten bila. Hona hemen legearen oinarritzko helburuak:

- Gaur egungo beharrianak asetzen dituen garapen jasangarri bat bilatzea hurrengo generazioen beharrianak betetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe
- Biodibertsitatearen kontserbazioa bere osagaien erabilera jasangarri batentzako
- Biztanleriaren bizi kalitatearen hobekuntza
- Ingurugiroa babestea, bere narriadura saihestea eta kutsatutakoa konpontzea
- Ingurumen inpaktuak ahalik eta gehien murriztea, aurretik ebaluatuz ekintzen ondorioak eta hartu beharreko neurriak
- Ingurumenaren ezagutza bultzatzen duten ikerketak bultzatzea
- Hezkuntzako maila guztietan zein gizartean ingurumen-erakundeak sustatzea
- Ingurumen-kontsiderazioak hiri planifikazioan txertatuz hiriko ingurunearen jasangarritasuna bermatzea
- Nekazaritza eta ingurugiroaren arteko oreka mantenduz landa ingurunearen jasangarritasuna bermatzea

Ondoren Eusko Jaurlaritzak garapen jasangarriaren alde eginiko apustua indartu zuen 2001eko Euskal Herriaren Jasangarritasunerako Konpromisoarekin (Ihobe, 2002), zeinaren printzipioak hauek ziren:

- Kodigo etikoa: kontsumoari buruzko pentsatzeko modu, balio eta bizimodua aldatzea
- Kohesioa eta parte-hartze soziala: gizarteko sektore guztiak dute paperen bat jasangarritasunerako prozesuan
- Ardura printzipioa: ingurugiroarekiko mehatxuak daudenean jokabideak bultzatzea
- Ikuspegi integratua: ingurumen aldagaia sektore politika guztietan integratzea
- Ekoefizientzia: baliabide naturalen erabilera murriztea produktibitatea handituz
- Planifikazio estrategikoa: ingurumen helburuak garapen-modelo berriari buruzko gizartearen hausnarketa prozesu baten ondorio izan behar dira.

Hala ere, epe luzera ondo zehaztutako eta estrukturatutako ikuspegi estrategikoa eman zuena Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 dokumentua izan zen. (Ihobe, 2002).

Euskal estrategia Euskal Herriaren egoeran eta Europar Batasunaren estrategian oinarrituz garatu zen. Izan ere Europar Batasunak *Garapen Iraunkorrerako Europar Batasunaren estrategia* aurkeztu zuen 2001eko Gotenburgoko batzarrean, zeinak ondorengo 5 xede ziuen:

- Politika gama zabal batean esku hartzeko beharra. Politika komunitario guztiek Europar Batasunaren garapen iraunkorrerako helburu estrategikoei ahal den neurrian lagundu beharra.
- Aldaketa klimatikoa murriztu eta energia garbien erabilera haztea.
- Osasun publikoaren mehatxuei erantzutea:
 - Alimentuen segurtasun eta kalitatea bermatzea
 - 2020 urterako gizakientzako eta ingurumenarentzako mehatxurik suposatuko ez duten produktu kimikoen erabilera eta produkzioa
 - Infekzio gaixotasunen pizte eta antibiotikoen erresistentziei erlasionaturiko arazoak konpontzea
- Baliabide naturalen kontsumo arduratsuagoa
 - Hazkunde ekonomikoa, baliabideen erabilera eta zaborraren produkzioa bezalako ideiak bereiztea
 - Habitat eta sistema naturalak berreskuratu eta babestea, biodibertsitatearen galera oztopatuz
- Garraio sistema eta lurralde antolamendua hobetzea
 - Garraioaren erabileraren hazkuntza BPGaren hazkuntzagandik aldentzea
 - Garraioaren transferentzia bat lortzea errepidetik ferrokarrilera
 - Eskualdeko garapen orekatuago bat bultzatzea, aktibitate ekonomikoan dauden desberdintasunak murriztuz eta landa eta hiri komunitateen bideragarritasuna mantenduz

Aurreko guztiaren haritik, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 proiektuan epe motz zein luzerako helburu eta konpromiso batzuk ezarri ziren, ondoren azaltzen direnak (Ihobe, 2002):

- Aire, ur eta lurzoru osasungarri bat bermatzea
 - 2006rako ibaietara eta itsaso zonetara isuritako isurpen kutsatzaileen kantitatea erdira murriztea
 - Europar Batasunak ezarritako aire kalitatearen helburuak betetzea
 - 2006rako kutsatutako lurzoruen %20a berreskuratzea

- 2006rako alimentuen etiketatze sistema bat garatzea produkzio modua azalduko duena
- Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua
 - 2006rako ur horniduran dauden galeren %20 berreskuratzea
 - 2010erako Europar Batasunaren helburuekin bat etorritik energia berriztagarrien erabilerearen hazkuntza
 - 2006rako zaborte-gira botatzen diren hiri-hondakinen %75 saihestea
 - 2000 urtean oinarri hartuz hondakin arriskutsuen sorrera egonkortzea 2006an
- Naturaren eta biodibertsitatearen babesa
 - 2006an EAEn igarobide ekologikoak ezartzea
 - 2012rako gutxienez ibaien 15km berreskuratzea
 - 2006an azalera totalaren %20 handitzea
 - 2006rako desagertze arriskuan bezala katalogatuta dauden espezie guztientzako kudeaketa plan bat ezartzea
- Lurraldearen oreka eta mugikortasuna
 - 2006rako 5.000 biztanle baino gehiago dituen herri guztiek Agenda 21 programa bat diseinatu behar dute
 - 2006rako 2001 urtearekiko %10ean handitzea hiriguneetako garraio publikoaren erabilera garraio totalarekiko
 - 2012 urtean errepide bidezko garraioa murriztu errail bidezko garraioaren, itsasontzi bidezko garraioaren eta garraio bide publikoaren ordezkatuz
- Aldaketa klimatikoaren eragina mugatu
 - 2012rako Kiotoko protokoloan berotegi-efektuko gasen murrizketari buruz esaten zena betetzea
 - 2004tik aurrera etxebizitza guztiek efizientzia energetikoaren ziurtagiria eduki behar dute

Estrategia hau, aldi berean, lau edo bost urte irautean duten eta aurretik aipatu diren hainbat programa markoren bidez inplementatzen da, zentzuetatik lehenengo hirurak dagoeneko gauzatu diren: I Ingurumen Esparru Programa 2002-2006 (Ihobe, 2002), II Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 (Ihobe, 2007) eta III Ingurumen Esparru Programa 2011-2014 (Ihobe, 2011a)

Gaur egun programa hauetako laugarrena dago indarrean, VI Ingurumen Esparru Programa 2020, Eusko Jaurlaritzak aurkeztua 2014ko Abenduak 2an eta 2020raino heltzen dena eta aurretik xehetasunez azaldu dena.

Azkenik, euskal administrazioak aurrera eramandako beste programa batzuk aipatuko dira. Hauetako batzuk lehen aipaturiko programa markoetan amaitu dute:

- Klima Aldaketaren Aurka Borrokatzeko Euskal Plana 2008-2012
- Euskadiko Estrategia Energetikoa 2020
- Landa Garapenerako Eskualdeetako Programak 2007-2013
- Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2020 Gida Plana
- Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa

6.4 Erosketa eta kontratazio publiko berdea EAEn

Eusko jaurlaritzak 2004an hasi zen erosketa eta kontratazio publiko berdea erabiltzen hainbat plan estrategiko eta berriazko akordioaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan. 2004az geroztik prozesu honen erabilera hazi egin zen. Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) konpromisoa erakusten dute 2007-2010 aldirako Ingurumen Esparru Programak, Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den 2007-2010 aldirako Kontsumo Planak eta hurrengo 2008-2011 aldirako Hondakin ez Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana (Ihobe, 2010). 2008an Jaurlaritzak sektore publikoaren erosketetan gizarte, ingurumen irizpide eta beste politika publikoak txertatzeko hartutako erabaki zen ere bai, baita, 2012-2016 aldirako Gobernu programan ere. (Ihobe, 2016a)

2011n, 2011-2014rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen lehenengo Programa onartu zen. Eusko Jaurlaritzaren sail eta sozietate publikoek kontratazio publiko berdearen inguruan izan beharreko jarrera ezartzeko, asmo handiko helburu bat lortze aldera. 2014rako, lehentasuna zuten produktuen multzo jakin bateko erosketen eta kontratazioen % 100ean ingurumen-irizpideak barneratuak izateko helburu zuen (Ihobe, 2012). Programa hau lorpen handia izan zen eta kontratazio publikoari bidea ireki ziola esan daiteke. Halaber, programa honetan zehaztutako irizpideak erreferentziatzat hartuak izan dira ondoren egin diren programetarako. Arrakasta zenbatekoa izan zen ikusteko zenbakiak begiratu besterik ez dago, 2016rako Eusko Jaurlaritzaren erosketa eta kontratazio berdearen maila orokorra % 30 zen. Kontuan hartuta kontratazio guztietan ez dagoela ingurumen irizpideren bat sartzea lorpen handia da %30 era iristea.

Azken urteotan, Euskal Administrazioiko maila ezberdinetako 80 erakunde publikok baino gehiagok eskatu dute laguntza euren kontratazio

prozesuetan kontratazio berdearen ingurumen klausulak ezartzeko (Ihobe, 2016a). Izan ere ingurumen-klausula hauek baldintza-orrietan sartzea ez da batere erraza, ez dago behar besteko prestakuntzarik oraindik. Honek zera erakusten du argi eta garbi kontratazio berdearen arrakasta. Gai honen inguruko interesa zabaldu egin da eta dagoeneko erabat integraturik dago bai Eusko Jaurlaritzan, bai Foru Aldundian zein Tokiko Erakundeetan.

Prozesu guzti honen fruitu da 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa. Eusko Jaurlaritzak onartzen duen mota honetako bigarren programa da hau. Programa honekin administrazioak baliabideak modu eraginkorrago batean kudeatzea ahalbidetuko du, ekoberrikuntza enpresetan txertatuz hauen egoera hobe dadin, bai Euskadin bai atzerrian. Helburu nagusia erosketa publiko berdea instituzionalizatzea da administrazio parte-hartzaileetan. Horrela 2020.urterako kontratazio publikoaren % 50ean ingurumen-irizpideak txertatzeko asmoa da (Ihobe, 2016).

Behin erosketa eta kontratazio publiko berdeak EAEn izan duen ibilbidea azterturik, ibilbide honetako bi programa nagusiak azalduko dira xehetasun gehiagorekin, hauek egin duten ekarpenagatik.

6.4.1 Eusko Jaurlaritzaren Lehenengo Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2011-2014

2011ko abenduaren 20an Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako programa, erosketa eta kontratazio publiko berdearen lehenengo programa EAEn. Europako joerekin eta 2008an kontratazio prozesuetan irizpideak txertatzeko erabakiarekin bat egiten zuen honek, baita EkoEuskadi 2020rekin ere, merkataritza berde eta berritzaile bat bilatzen baitzuen. Ingurumen eraginagatik eta kontratazio publikoan duten bolumenagatik funtsezkoak diren produktu eta zerbitzu talde zehatzen erosketa eta kontratazio publiko berdea ezartzeko prozesua bizkortzeko sortu zen.

Europar Batasunak 2010.urterako erosketa eta kontratazio publiko berdea kontratazio guztiaren % 50 izateko zegoen helburua EAEn txertatzea bultzatu zuen. Administrazio ugari izan ziren konpromisoak hartu zituztenak beren politiketan kontratazio berdea txertatzeko. EAEn Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak kudeatzen zuen bultzatze-estrategia hori. Horregatik, Programa honek Eusko Jaurlaritza osatzen zuten sailek konpromiso zehatzak ezartzeko laguntza sendotuko zuen, Europar Batasunak ezarritako helburuak lortzeko. Bultzatze-estrategia horrek

4.irudian azaltzen den ikuspegi operatibo honi erantzuten zion lan-programa zuen:



4.irudia: Biltzatze-estrategiaren ikuspegi operatiboa

Iturria: Ihobe

Helburuak zehazterakoan, europar Batzordeak proposatutako helburuekiko lerrokatzea eta koherentzia bilatzen zen. Eusko Jaurlaritzaren Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren (2011-2014) helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea biltzatzea zen merkatuan ingurumen irizpideak aintzat hartuz. Gizarteari errespetuzkoagoak diren ingurumen produktu eta zerbitzuak eskurago jartzea. Baliabide naturalak beren bizitza-ziklo osoan modu eraginkorragoan eta jasangarriagoan erabiltzea ere bilatzen zuen, eta honek zera suposatzen du, kontsumoa gutxitzea, baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea eta ingurumenaren gaineko eragina txikitzea.

Programa ezarrita, honako onura hauek aurreikusten dira:

- Ingurumenaren gaineko eraginak modu eraginkorrean gutxitzea.
- Kontratatzekeo ardura duten Administrazioek diru gutxiago gastatzea.
- Enplegu “berdea” sortzea.
- Kontratazio publikoaren bidez gizarte-onurak maximizatzea.
- Ingurumen-teknologiaren garapena eta hedapena bizkortzea, eko-berrikuntzan oinarritutako produktu eta merkatu berriak sortzea sustatuz.

Helburu zenbagarri bezala programa honek 2012an Eusko Jaurlaritzaren eta hari atxikitako Erakundearen erosketa publikoaren % 75ean erosketa eta kontratazio publiko berderako irizpideak erabiltzea ezarri zuen eta 2014an asmo hori % 100era iristea. 2012rako lehentasuna eman zitzaion irizpideak hobekien definituta dauzkaten eta eragile gehien inplikatzeko dituzten produktu eta zerbitzuen irizpideak sistematikoki ezartzeari. Horrela, 2012 bitartean beste irizpideak hobetzen joan zitekeen.

Hauek dira irizpideak hobekien definiturik dituzten eta gutxieneko merkatu bat duten produktu eta zerbitzuen multzoa, programa honen eremua:

- Bulegoko papera
- Informatika-ekipoak
- Bulego-altzariak
- Ibilgailuak (autoak eta furgonetak)
- Eraikinetako garbiketa-lanak
- Mezularitza
- Argitalpenak eta bestelako inprimakiak
- Unean uneko catering-zerbitzuak
- Vending-zerbitzuak
- Lorezaintza
- Ehun-gaiak- laneko arropa
- Aholkularitza
- Ekitaldiak antolatzeko lanak
- Catering-zerbitzu iraunkorrak
- Barne-argiztapena
- Energia-zerbitzuak
- Eraikitze-lanak
- Urbanizatzeko-lanak

Programaren barruan erabaki da denboraren arabera lehentasunak ezartzea, ahaleginak arrazionalizatu eta emaitzak optimizatu ahal izateko. Hala, 2012rako listako lehenengo 12 produktuak finkatu ziren eta 2014rako gainerakoak. 7. taulan egiten da programaren helburu kuantifikagarrien laburpen bat:

PRODUKTUA/ ZERBITZUA	2012rako		2014rako		LEHENTASUNTZAT HARTUTAKO SAILAK
	KONPROMIS OA	GUTXIENEO ESKAKIZUN MAILA	KONPROMISOA	GUTXIENEO ESKAKIZUN MAILA	
Bulegoko papera	%100	Oinarrizkoa	%100	Aurreratua	Justizia eta Herri Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Osasuna eta Kontsumoa
Informatika- ekipoak	%100	Oinarrizkoa	%100	Aurreratua	Herrizaingoa Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Justizia eta Herri Administrazioa
Bulego- altzariak	%50	Oinarrizkoa	%100	Oinarrizkoa	Justizia eta Herri Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa
Ibilgailuak (autoak eta furgonetak)	%100	Oinarrizkoa	%100	Bikaintasuna	Justizia eta Herri Administrazioa Herrizaingoa Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa

Eraikinetako garbiketalaranak	%100	Oinarrizkoa	%100	Aurreratua	Justizia eta Herri Administrazioa Herrizaingoa Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa
Mezularitza	%100	Oinarrizkoa	%100	Aurreratua	Justizia eta Herri Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Herrizaingoa Lehendakaritza
Argitalpenak eta bestelako inprimakiak	%100	Oinarrizkoa	%100	Aurreratua	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa Lehendakaritza
Unean uneko catering-zerbitzuak	%100	Oinarrizkoa	%100	Aurreratua	Lehendakaritza Kultura Herrizaingoa
Vending-zerbitzuak	%100	Aurreratua	%100	Bikaintasuna	Justizia eta Herri Administrazioa

					Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Herrizaingoa
Lorezaintza	%50	Oinarrizkoa	%100	Oinarrizkoa	Justizia eta Herri Administrazioa Herrizaingoa Lehendakaritza
Ehun-gaiak- laneko arropa	%100	Oinarrizkoa	%100	Aurreratua	Herrizaingoa Lehendakaritza Osasuna eta Kontsumoa
Aholkularitza	%100	Oinarrizkoa	%100	Aurreratua	Eusko Jaurlaritzaren Sail guztiak
Ekitaldiak antolatzeko lanak	2012rako konpromiso kualitatiborik gabe	Irizpideak ezartzean edo/eta egiaztatzen egindako aurrerapena	%100	Oinarrizkoa	Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Justizia eta Herri Administrazioa Herrizaingoa Lehendakaritza Kultura

Catering-zerbitzu iraunkorrak	2012rako konpromiso kualitatiborik gabe	Irizpideak ezartzean edo/eta egiaztatzen egindako aurrerapena	%100	Oinarrizkoa	Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Herrizaingoa Justizia eta Herri Administrazioa Osasuna eta Kontsumoa
Barne-argiztapena	2012rako konpromiso kualitatiborik gabe	Irizpideak ezartzean edo/eta egiaztatzen egindako aurrerapena	%100	Oinarrizkoa	Justizia eta Herri Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Herrizaingoa Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa Osasuna eta Kontsumoa
Energia-zerbitzuak	2012rako konpromiso kualitatiborik gabe 2012rako konpromiso kualitatiborik gabe	Irizpideak ezartzean edo/eta egiaztatzen egindako aurrerapena	%50	Oinarrizkoa	Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Justizia eta Herri Administrazioa Herrizaingoa

Eraikitze-lanak	2012rako konpromiso kualitatiborik Irizpideak ezartzean edo/eta egiaztatzen egindako aurrerapena gabe	Irizpideak ezartzean edo/eta egiaztatzen egindako aurrerapena	%50	Oinarrizkoa	Justizia eta Herri Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Herrizaingoa Osasuna eta Kontsumoa Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa
Urbanizatzelanak	2012rako konpromiso kualitatiborik gabe	Irizpideak ezartzean edo/eta egiaztatzen egindako aurrerapena	%100	Oinarrizkoa	Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza

7.taula: 2020 programaren helburu kuantifikagarriak

Iturria: Ihobe

(Ihobe, 2011b)

6.4.2 Euskadiko Bigarren Erosketa Eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa – 2020

Egun indarrean dagoen programa hau 2016ko irailaren amaieran onetsi zen. Eusko Jaurlaritzak onartzen duen mota honetako bigarrena da, eta Euskadiko administrazio publikoak beren erosketa eta kontratazioetan ingurumenarekin lotutako irizpideak txertatzera bultzatzeko esparru ezin egokiago bat ezartzen du. Programak beharrezko jarduera-esparrua finkatzen du Euskal Administrazio osoa mobilizatzeko eta bere erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak kontuan izan ditzan eta barneratu ditzan.

Misioa Euskadiko administrazio publikoei ingurumenaren ikuspuntuari dagokionez eredarria izatea lortzea da. Administrazio eraginkorrago eta, ingurumenari dagokionez, arduratsuago bat lortzea; baliabideen erabilera efizienteago bat egitea; merkatuarekiko koordinazioa optimizatzea; eta Euskadi Europa Hegoaldean erosketa eta kontratazio publiko berdearen erreferente bihurtzea.

Bestalde, programa hau aurreko programa bezala ez da programa isolatu bat. Are gehiago, programa honek Europa mailako zein maila autonomikoetako programekin bat egiten du. Esateko, Europa 2020 Estrategiarekin zeinak baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen Europa bilatzen duen. Estrategia honen bitartez Europar Batasunaren hazkunde adimendunago, jasangarriago eta integratzaileago baterantzko bidea markatzen du, karbono gutxiko ekonomia zirkular baterantz. Horrez gain, 2020rako Euskadiko Ingurumen Esparru Programa ingurumen-politikarekin ere bat egiten du.

Ikuspegi global batetik begiratu eta bizi-zikloaren ikuspegia erabat barneratuz kontratazio prozesuan, 3 helmuga nagusi ditu:

- Aurretik aipatu den bezala, administrazio eraginkorrago bat baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzen dituen, kontratazio-prozesuak hobetuz eta haietan ingurumen-irizpideak sistematikoki txertatuz.
- Merkatuarekiko koordinazioa optimizatzea, ekoberrikuntza txertatuz eta euskal enpresek posizio hobea lortzeko, bai Euskadin, bai kanpoan.
- EAEko Administrazioaren maila guztietan konpromiso eraginkorra lortzea.

Aurreko programarekiko berritasun bat irismenean aurkitzen da. Programak izaera parte-hartzaile irekia du. Programa berri honek jauzi kualitatibo bat ematen du euskal administrazio osoak bere borondatez parte hartzea sustatuz. EAEko administrazio publiko osoari, hasi EAEko administrazio orokorretik eta tokiko erakundeetararte foru-aldundietatik pasatuz,

zuzentzen zaio programa hau merkatuari mezu bateratu bat bidaliz eta administrazio publikoen itxura hobetuz.

Programari atxikitzeko eta bertan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Euskal sektore publikoko erakunde bat izatea.
- Erakundeak atxikimendu-akordioa sinatzea.
- Pertsona arduradun bat izendatzea erosketa eta kontratazio publiko berdea erakundearen gidatzeko eta koordinatzeko.

Horrela programa honi atxikitako hainbat enpresa daude dagoeneko:

- Udalsarea 21, Jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
- Euskal Irrati Telebista, EITB
- Legazpiko Udala
- Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa
- Energiaren Euskal Erakundea-EVE
- Udaltalde 21-Nerbioi Ibaizabal
- Mutualia
- Beterri-kostako Industrialdea
- Sprilur
- Deba Bailarako Industrialdea
- Donostiako Udala
- Abanto Zierbenako Industrialdea
- OSI Goierri Alto Urola
- Urolako Industrialdea S.A
- Goierri Beheko Industrialdea
- Bilboko Udala

- Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
- Arratiako Industrialdea
- Bizkaia Sortaldeko Industrialdea
- Gasteizko Udala
- UR Agentzia
- VISESA
- Itelazpi
- Arabako Industrialdea
- Bidasoa Oarsoko Industrialdea, S.A.
- Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra S.A.
- OSI Barrualde-Galdakao
- Hospital de Santa Marina

(Ihobe)

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programak bi helburu mota zehazten ditu: prozesu helburuak eta emaitza helburuak (helburu zenbagarriak).

Prozesu helburua honakoa da: administrazio parte-hartzaileetan erosketa publiko berdea instituzionalizatzea.

Emaitza helburuei dagokienez, aldiz, bi ziren helburu nagusiak. 2018rako 10 produktu-multzoren eta zerbitzu-multzoren lizitazioen %50ean ingurumen-irizpideak txertatzea:

- Paperetan
- Ordenagailuetan
- Inprimatze ekipoetan
- Eraikuntzen garbiketean
- Ibilgailuetan
- Publikazioetan
- Elikaduran
- Lorezaintzan
- Bide garbiketean

- Obra zibiletan eta azpiegituretan

2020. urterako hurreko hamar produktuez gain beste 10 produktu/zerbitzu-multzoren lizitazioen %50ean ingurumen-irizpideak txertatzea:

- Eraikuntzan
- Urbanizazioan
- Zabor bilketan
- Elektrizitate horniduran
- Garraio publikoan
- Mezularitzan
- Bulegoetako altzarietan
- Ehungintzan
- Bidaietan
- Ekitaldietan

Bestalde, programa honek badu kudeaketa- eta gobernu-eredu bat. Izan ere programa honi segimendu bat egingo zaio urtero ebaluatuz zenbateraino bete diren ezarritako helburuak eta jarduerak. Kudeaketa-egitura honek hiru osagai ditu:

- Trakzio taldea: Eusko Jaurlaritzako sail konkretu baten ordezkariak osatuko dute talde hau, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailekoak edota Finantza sailekoak beste batzuen artean. Ordezkariek hauek Talde horretako lider eredu izan beharko dute EAEko gainerako administrazioaren aurrean. Sailarte honek programa gidatu eta koordinatuko du, beste administrazioentzako eredu izanik. Programan hartutako konpromisoak betetzen direla ziurtatuko da eta emaitzak ebaluatuko ditu.
- Idazkaritza teknikoa: Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoak hartuko du bere gain programako ekintzak dinamizatzea eta maila praktikoan hedatzea.
- Administrazio parte-hartzaileak: Hauek 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programarekiko konpromisoa duten Euskadiko administrazioak dira.

Azkenik, 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa bost lerro estrategikoren inguruan artikulatzen da programa:

- Inplementaziorako eduki eta erremintak: Administrazioari programa aurrera ateratzeko beharrezko eta oinarrizko baliabideak ematea da,

honek modu seguruan txerta ditzan ingurumen irizpideak bere kontratazio-prozesuetan.

- Kontratazio-prozeduren integrazioa: Kontratazioan ingurumen-irizpideak modu eraginkorren eta normalizatuan txertatzea da helburua, horretarako dauden kontratazio-prozedurak eta -tresnak aztertuz.
- Formazioa, trebakuntza eta sentsibilizazioa: Euskal Administrazioaren arduradunak maila guztietan gaitzea da helburua, batetik, onurei buruz, eta, bestetik, ingurumenari dagokionez arduratsua den kontratazioa egiteko.
- Merkatuarekin koordinazioa: erosketa eta kontratazio publikoaren prozesuak sortzen duen aukeretan parte hartzeko Euskadiko sektore pribatua mobilizatzea eta aktiboki inplikatzeko da helburua.
- Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lanak: Euskadiko eta kanpoko administrazioen lizitazioak lortzeko. Sinergiak ahalik eta gehien baliatzea da asmoa, eta euskal administrazioak erreferentzia gisa ikusiak izatea bai hemen, bai kanpoan.

(Ihobe, 2016a)

6.4.3 Gipuzkoako udalerrien azterketa

Lanaren zati hau egiteko Artizar Erauskin Tolosak egindako tesiaz (Erosketa eta kontratazio publiko berderako ekimenak: Gipuzkoa herrialdeko kasurako aplikazioa) baliatuko da datu praktikoak lortzeko. Tesi honetan administrazioen datuak lortzen dira Artizar Erauskinek egindako inkesta baten bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietako bat Gipuzkoa da. Berriki erosketa eta kontratazio publiko berdearen inguruan egin den azterketa batez baliatuz Gipuzkoako administrazioan erosketa eta kontratazio publiko berdearen egoera zein den jakin daiteke. Azterketa estatistiko baten bidez lehenik adierazle batzuk kalkulatu dira eta Gipuzkoako udalerrien sailkapen bat egiten da hauen arabera: ingurumen eta ekonomia-lehiakortasun adierazleak, kohesio sozial adierazlea, iraunkortasun adierazlea. Adierazle hauek azaltzen dute tokiko administrazioak erosketa eta kontratazio publikoko prozesuetan ingurumen eskakizunak barneratzerako aukera egokiak dituztela.

Inkesta Gipuzkoako udalerri batzuei bidali zitzairen eta bidalitako galdetegiak 17 erantzun ziren.

Jasotako emaitza guztietatik soilik erosketa eta kontratazio publiko berdearen inguruko informazioan sakonduko da. Erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko galderen erantzunetatik ondorioztatu daiteke ingurumen eskakizunak oraindik ez daudela guztiz sarturik Gipuzkoako erosketa eta kontratazio publikoan. Toki administrazioei erosketa eta kontratazio publikoetan


edota hornitzaileekin harremanetan jartzean ingurumen irizpideak sartzen ote zituzten galdetu zen. Honen aurrean udalerrien %56,25ak batzuetan sartzen dituztela erantzun zuten eta beste %43,75ak ezezkoa eman zuten. %56 horrek egiten duten ingurumen eskakizun nagusia hornitzaileari ingurumen kudeaketa sistemaren bat exijitzea izaten da, 8.taulan ikusten den bezala:

Ingurumen eskakizun esnguratsuenak	Bai	Batzuetan	Ez	Ez dakit
Ondasun hornitzaileek ingurumen kudeaketa sistema bat izan behar dute	%18,75	%37,5	%43,75	%0
Zerbitzu hornitzaileek ingurumen kudeaketa sistema bat izan behar dute	%18,75	%37,5	%43,75	%0
Ingurumen etiketak(edo baliokidea) izatea edo (gutxieneko) ingurumen ezaugarri estandarrak izatea derrigorrezkoa da ondasunak erosterakoan	%12,5	%18,75	%50	%18,75

8.taula: Administrazioen ingurumen eskakizun nagusiak

Iturria:Erauskin, 2014

Ingurumen eskakizun hauek, noski, produktu eta zerbitzu ezberdinen kontratazio edo erosketan egiten dira. Hori bai, udaletxe guztiek aipatu zuten papera, hau da galdetegia erantzun zuten administrazio guztiek txertatzen dute ingurumen eskakizunak paperaren erosketan. Ondoren datoz udal ibilgailuak, informatika ekipoak eta eraikinen garbiketa ekipoa. 4.grafikoak lagineko 5 udalerrik erosten eta kontratatzen dituzten produktu eta zerbitzu berdeak eta hauen aipamen kopuruak azaltzen ditu:



Grafikoa 4. Ingurumen eskakizunak egiten zaizkien produktuak/zerbitzuak

Iturria: Erosketa eta kontratazio publiko berderako ekimenak, 2014

Erosketa eta kontratazio publiko berdearen erabilerari dagokionez oraindik prezio baxuenaren irizpidearen itzalpean dago. Udalerriei prezio baxuenaren eskaintza baztertzen den edo ez galdetzean soilik 4 udalerrik erantzun zuten baietz.

Bestalde, galdetegien erantzunek argi eta garbi erakusten dute udalerrietako administrazioek informazio falta igartzen dutela, hala dio laginaren %71ak behintzat. Bada, toki administrazio hauek zailtasun handiak nabari dituzte ingurumen irizpideak barne hartzerakoan, esaterako denbora gehiago behar izatea, edo borondate falta eta ezjakintasuna, %77ak informazio gehiago izatea proposatuz.

Azkenik udalerrri ezberdinak erosketa eta kontratazio publiko berdearen inguruan egin dituzten jardunbide batzuk aurkeztuko ditugu 9.taulan, adibide konkretu gisa:

Jardunbidea	Udalerrria	Urtea
Automobilak, kamioiak, ibilgailuak eta makineria mantentzeko zerbitzua kontratatzean, ingurumen irizpideak aintzat hartzea	Errenteria	2010
Langileentzat lanerako jantziak eta oinetakoak hornitzeko agiria	Donostia	2009-2010
Bulegoko materialez hornitzeko Baldintza-orria ingurumenari egokitzea	Gipuzkoako Foru Aldundia	2009
EKOLAPIKO, elikadura ekologikoa eta orekatua hiru haur-eskoletan	Donostia	2007
Haur-hezkuntzako ikastetxeetan pixoihal berrerabilgarriak erostea eta erabiltzea	Donostia	2006
Ingurumen-irizpideak kontuan izanik funtzio anitzeko inprimagailuak erostea	Arrasate	2009
Elikadura ekologikoa haur-eskola baten	Usurbil	2004
Zerbitzu energetikoak kontratatzea eta Kiroletako Udal Patronatuko (KUP) eraikinetako, instalazioetako eta ekipoetako instalazio termikoak berme guztiekin mantentzea	Donostia	2005-2015
Edari beroak saltzen dituzten makinetan bidezko merkataritzako kafea erabiltzea eta haien hondakin kantitatea murriztea	Donostia	2005etik aurrera
Gasolinazko motorra eta elektrikoa bateratzen dituzten ibilgailu hibridoak erostea	Donostia	2007
Papera eta paperezko produktuak erosteko eta erabiltzeko estrategia integrala	Arrasate	2005

9.taula: udalerrri ezberdinen jardunbideak

Iturria: Erosketa eta kontratazio publiko berderako ekimenak, 2014

(Erauskin, 2014)

7- ESPAINIAKO EGOERA

7.1 Kontratazio Publiko Berderako Plana

PRE/116/2008 aginduan 2008ko urtarrilaren 21ean Ministroen Kontseiluaren Akordua egin zen publiko, Estatuko Administrazio Orokorraren Kontratazio Publiko Berderako Plana (KPBP) onartuz. Plan honek 18/2004/CE zuzentarauak dioenarekin bat egiten du.

Helburu nagusizat, kontratazio publikoan ingurunea errespetatzen duten praktikak ezartzea zen. Hitz batez, komunitatearen helburuei erantzun eta gainera Europar Komisioaren gomendioei kasu egiten zien plana zen, ingurugiroaren babesa sustatzen zuten politikak aplikatzeko euskarri eta osagarria, baira klimaren, eta energiaren aurrezte eta efizientzian.

Plan honek botere esleitzzaileak kontratazio publikoaren fase ezberdinetan txerta zitezkeen ingurumen izaera eta izaera sozialdun baldintzak finkatzen zituen. Europar Komisioak lehentasuna eman zien produktu, obra edo zerbitzu talde konkretu batzuk erosi edota kontratatzean ingurumen kontsiderazioak eranstearen inguruko helburuak ezartzen ditu. 10.taulan ikus daitezke produktu eta zerbitzu multzo horiek:

KPBPeant sartutako produktu eta zerbitzu multzoa
Eraikuntza eta mantenua
Garraioa
Energia
Bulegoetako ekipoak
Papera/argitalpenak
Altzariak
Garbitasuna
Ekitaldiak

10.taula: KPBPeant sartutako produktu eta zerbitzu multzoa

Iturria: Administración General del Estado, 2015

7.2 Lehenengo informea: 2011

2011ko azaroaren 4an Ministroen Kontseiluak Kontratazio Publiko Berdearen egoeraren inguruko Lehenengo Txostena Orokorra argitaratu zuen, KPBPeant jasotako produktu eta zerbitzuenak. Txosten hau garatzeko

Ingurumen, Landa eta Itsas Eremu Ministerioak plana kontrolatzeko prozedura bat diseinatu zuen.

Jaso zen informazio guztiaren analisiak, ikertutako erakundeak KPBPak ezartzen zituzten neurriak martxan jarri zituztela ondorioztatzea ahalbidetu zuen. Are gehiago, periodo horretarako, neurrietako batzuetan ezarpenean betetze maila planak zehaztutakoa baino handiagoa izan zen: hondakinen bilketa bananduan, obren proiektuetako ingurumen parametroen txertaketan, efizientzia energetiko handiko ekipo informatikoen erosketan eta garbiketa zerbitzuan.

Emaitzei begira, laburtuz, gestio eta kontsumo publikoan aldaketaranzko lehenengo pausuak eman zirela ondoriozta zitekeen.

7.3 Bigarren informea: 2015

Bigarren Txosten Orokorrean aztertu ziren produktu eta zerbitzuen multzoa 11.taulan adierazten da:

KPBPeant sartutako produktu eta zerbitzu multzoa
Eraikuntza eta mantenua
Garraioa
Bulegoetako ekipoak
Papera/argitalpenak
Garbiketa produktu eta zerbitzuak
Altzariak
Ekitaldiak
Beste batzuk (energia, etab.)

11.taula: KPBPeant sartutako produktu eta zerbitzu multzoa

Iturria: Administración General del Estado, 2015

Txosten hau garatzeko galdetegi bat igorri zen hainbat erakundetara eta hauen barneko egoitzetara: atzerri ministerioari; justizia ministerioari; defentsa ministerioari; hazienda eta administrazio publikoetako ministerioari; barne-arazoetako ministerioari; sustapen ministerioari; edukazio, kultura eta kirol ministerioari; enplegu eta segurtasun sozialeko ministerioari; industria, energia eta turismo ministerioari; nekazaritza, elikadura eta ingurugiro ministerioari; presidentzia ministerioari; ekonomia eta lehiakortasun ministerioari eta osasun,

zerbitzu sozial eta berdintasun ministerioari. Guztira 120 dokumentu baino gehiago aztertu ziren txosten hau sortzeko.

Horrela galdetegi hauetan erantzundakoa aztertuz hainbat ondorio atera ziren. Oso laburtuta ondorengo 12.taulan ageri da txostenean aztertutako eta KPBPean esandako bezala ezarri beharreko neurrien ezarpen gradua:

Zerbitzua/produktua	Behaketa	Gradua
Eraikuntza eta mantenua	Hondakinak bananduta jasotzeko sistema ezarri da	Zabala
	Eraikuntzetan ura aurrezteko sistema bat ezarri da, edota ezarpen sistema hauen planoak	Zabala
	Mantenu obretarako, proiektuen birgaitzeetarako, birziklatutako materialen erabilerarako, material berrerabilgarrietarako eta esku hartzearen ondorioz sortutako hondakinak batzeko baldintza-agiriak sartu dira	Moderatua
	Instalazioen prebentziozko mantenua sartu da eraikuntzen mantenu-kontratuetan	Moderatua
Garraioa	Bioerregaiak erabiltzen dituzten automobilen edo automobil elektrikoaren edo hibridoaren txertaketa organizazioaren automobilen artean	Moderatua
	Organizazioaren diesel automobiletan partikuladun filtroak txertatu dira	Zabala
	IDAE automobil katalogoaren arabera A edo B sailkapen energetikoa duten automobilak erabilgarri daude	Moderatua
	Organizazioaren mezularitza kontratuetan eta paketeria kontratuetan efizientzia energetikozko irizpideak gehitu dira	Moderatua

	Estatuaren automobil-parkearen kasuan diesel automobilentzat partikuladun filtroen beharra ez dagoela informatu da	Totala
Bulego ekipamendua	Organizazioak Energy Star etiketadun ekipo informatikoak ditu edota 2014an erosiak dira	Totala
	2014an erositako inprimatze ekipamendua, birziklaturiko paperarekin bateragarria eta paperaren bi aldeetatik inprima dezakeena	Totala
Papera eta publikazioak	Paperezko publikazioak euskarri elektronikoengatik ordezkatu dira	Moderatua
	Publikazioen inprimaketan edota diseinu-kontratuetan jasangarritasun irizpideak txertatu dira	Moderatua
Garbiketa produktu eta zerbitzuak	Biodegradagarritasuna eta substantzia toxikoen presentzia bezalako aspektuak txertatu dira garbiketa kontratuen exekuzioan	Totala
	Birziklatutako paperezko zelulosa toallita eta komuneko papera	Moderatua
	Birziklatutako materialez eginiko paperontzi, kontainer, zabor poltsa, etab.	Moderatua
Altzariak	Modu jasangarri batean ustiatutako egur berriz eginiko altzariak erabiltzen dira	Altua
	Esleipen irizpideetan EU ekoetiketak txertatu dira	Baxua-moderatua
	Altzarien erosketan 5 urtetarako ordezkotako izateko garantia izatea esleipen irizpide bezala txertatzea	Baxua-moderatua
Ekitaldiak	Organizazioaren ekintzen propagandan esparrura gerturatzeko erabilgarri dauden garraio publikoei buruzko informazioa ematen da	Altua

	Ekitaldiaren ondorioz sortutako zaborraren bilketa banatua	Moderatua
Energia eta beste batzuk	Energiaren aurrezteak	Altua
	Borondatezko sistemak eta ingurugiro konpromiso integralak	Moderatua

12.taula: Txostenaren emaitzak

Iturria: Administración General del Estado, 2015

2015eko txostenean goiko informazioa aztertu ostean ondorengo ondorioak atera ziren:

- KPBPak produktu eta zerbitzu multzo batean egindako lorpena esperientzia baliogarria da lortutakoa eguneratzeko eta beste produktu eta zerbitzu multzo batzuetara zabaltzeko. Komenigarria da produktu eta zerbitzu ezberdinetarako irizpideak eta gomendioak analizatzen jarraitzea, etorkizunean kontsideratzeko eta sektore publikoaren baldintza-agirietan txertatzeko.
- Kontratazio publiko berdean aditu direnen artean informazio-truke periodikoak egitea eta komenigarria denean kontratazio publiko berderako informazio-gidak gauzatzea inplikaturiko administrazioekin.

((Administración General del Estado, 2015))

8- EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA EUROPAN

Gaur egun Europan indarrean dagoen estrategia Europa 2020 estrategia da. Europar Komisioak estrategia honetako xedeetariko bat erosketak eta kontratazio publiko berdearen erabilera zabalago bat lortzea da. Izan ere, urtero 1,8 trilioi euro zuzentzean gastu publikorako, Barne Produktu Gordinaren %14 inguru, erreminta indartsutzat jotzen da. Politika honen bultzada prozesua 2001ean hasi zen.

Europar Komisioak 2011n ikerketa bate gin zuen 2008an ezarri ziren helburuen betetze-maila zehazteko. Helburu hauetako bat, 2010erako kontratazio publikoentzako prozeduren %50a kontratazio berdea izatea zen. Ikerketa hau Europako 27 kideetan egiten zen lehenengo inkesta izan zen.

Emaitzak ez ziren espero zirenak, edo behintzat ez ziren helburuak bete. Izan ere, soilik kontratuen %26 ziren berdeak. Hala ere estatu kideek bide luzea ibili dute eta ez da ahaztu behar sinaturiko kontratuen %55ak gutxienez ingurumen irizpideren bat txertaturik zuen. 2009-2010 aldiarekin konparatuz %26ko jaitsiera eman zen.

Bigarrenik, ikerketak erakusten du nola erosketa eta kontratazio publiko berdeak aldakorra dela Europar Batasuneko herrialdeetan artean. Lau herrialde nagusitzen dira politika honen erreferente bezala, Belgika, Danimarka, Herbehereak eta Suedia, non kasuen %40-60ak ingurumen irizpideak txertaturik dituzten. Hauen ondoren ingurumen irizpideak kasuen %20-40ra bitartean txeratzen dituztenak datoz, Portugal, Irlanda, Polonia, Txekiar Errepublika, Finlandia, Eslovenia, Hungaria, Errumania, Bulgaria, Grezia, Letonia. Egoki jarduten duten estatu kideek erosketa eta kontratazio publiko berdearekiko kontzientzia gehien dutenak dira eta ingurumen irizpideak txertatzeko sistema bat garatua izan dute normalean.

Hirugarrenik, ingurumen irizpideak erabiltzen diren sektoreetan ere aldaketa handia dago, batzuetan beste baino askoz gehiago erabiltzen baitira. Esaterako, garraio-sektorean %50eko helburua betetzen duen bezala, altzari, alimentu, textil eta catering sektoreetan kasuen %20tik baino gutxiagotan erabiltzen dira irizpide berde hauek. (Temmerman, 2005)

2012an Europar Komisioak egin zuen beste ikerketa batean ondoren azalduko diren hainbat ondorio atera ziren aurreko ikerketan ateratako ez gain:

Lehenik eta behin, ikerketa honetan aurreko ikerketan ateratako emaitza berak agertzen dira. bestalde, ikerketa honek diotenarekin jakin daiteke 2009-2010 bitartean 236.752 kontratu sinatu zituztela administrazio publikoek Europan, 117,5 bilioi euroren balioarekin. Emaitzek azaltzen dute kontrataturiko edo erositako balio totalaren %38an ingurumen irizpideak txertatu zirela, Europa mailan, maila nazionalean, eskualde mailan zein tokiko erakunde mailan.

Erosketa eta kontratazio publiko berdea ezartzerako orduko arazoei dagokienez ikerketa honek dio 1etik 5erako eskala batean zailtasunak jasan dituzten administrazioen maila 3,06koa da, hau da, administrazioen %50ak baino gehiagok. Gobernu zentralak eta erregulatzailer independenteak jasan zituzten zailtasun handienak ikerketa honen arabera. (Renda, 2012)


9- GANTT-EN DIAGRAMA

Lan hau aurrera ateratzeko egin behar izan diren zeregin guztiak egiten eman den denbora grafikoki azaltzeko helburuarekin Gantt diagram bat egin da. Lehenik eginkizun hauek taula batean bilduko dira eta ondoren Gantten diagrama egingo da.

EGINKIZUNA	HASIERA DATA	IRAUPENA	BUKAERA DATA
Helburuen, irismenaren eta metodologiaren definizioa	07/02/2018	22	28/02/2018
Informazio bibliografikoaren bilaketa	28/02/2018	8	05/03/2018
Lanaren garapena	05/03/2018	95	07/06/2018
Ondorioen ezarpena	07/06/2018	16	22/06/2018

13.taula: Eginkizunak eta hauek aurrera eramateko denborak

Iturria: Propioa



Grafikoa 5: GANTT-en diagrama

Iturria: Propioa

10- TXOSTENAREN GAUZATZE-KOSTUAK

Lan hau egiteko mota ezberdineko gastuak egon dira, zeintzuk hiru multzo nagusitan sailka daitezke, barne orduak, amortizazioak eta gastuak.

- **Barne orduei** dagokienez, langileek proiektuan jarduten duten orduak dira:

Barne orduak	Proiektu orduak	Kostua orduko	GUZTIRA
Junior ingeniaria	180 h	30€/h	5.400 €
Senior Ingeniaria	30 h	60€/h	1800 €
			7.200 €

14.taula. Barne orduak

Iturria: Propioa

- **Amortizazioei** dagokienez, proiekturako erabiltzen diren aktibo finkoak:

Amortizazioak	Hasierako prezioa	Bizitza Erabilgarria	Proiektuaren iraupena	GUZTIRA
Ordenagailua	1.200 €	5 urte	8 hilabete	160 €
				160 €

15.taula. Amortizazioak

Iturria: Propioa

- **Lanerako gastuak**, hau da, lana bukatutakoan erabilerarik izango ez dutenak:

Gastuak	GUZTIRA
Fotokopiak	30 €
CD-en inprimaketa	35 €
Bidaiak	50 €
115 €	

16.taula: Beste gastu batzuk

Iturria: Propioa

Beraz, lan honen gastu totala aurreko hiru gastuen batura izango da:

Gastuak	GUZTIRA
Barne orduak	7.200 €
Amortizazioak	160 €
Lanerako gastuak	115 €
GUZTIRA	7.475 €

17.taula. Gatu totala

Iturria: Propioa

11-ONDORIOAK

Behin lanaren eduki guztia garatuta, ondorioak ateratzea falta da. Lana garatzen joan den heinean argi gelditu da nolako garrantzia eskuratzen ari den erosketa eta kontratazio publiko berdea egungo gizartean. Administrazioen gastu publikoa BPGaren %20 inguruan kokatzen da Europako herrialdeen artean eta honek argi uzten du erreminta honek ingurunean hobekuntzak egiteko dituen aukerak.

Esan daiteke, urteak pasa ahala indartzeko joera izan duela politika honek. Europar Komisia ohartu zen zeinen garrantzitsua zen erosketa eta kontratazio publiko berdea gauzatzea Iparraldeko herrialdeak modelo bezala jarritz. Horrela azken hamarkadan hainbat programa eta plan garatu dira politika hau sustatzeko Europako herrialde gehienetan Europar Komisia berak bultzatu da. Are gehiago, ondoriozta daiteke etorkizun batean indarra hartzen joango dela eta guztiz txertaturik egoteko aukera bat ere badago. Dena dela, oraindik administrazioen konpromisoa ezta ideala ezta gutxiagorik ere, kontzientzia faltak eta borondatezko izaerak baldintzaturik seguru aski.

Esan bezala egin diren ikerketa ezberdinak azaltzen dute nola oraindik ez den nahikoa lortu den estatusa. Hau ekidin duten hainbat arazo daude eta hainbat estudio bat datoz arazo hauek zeintzuk diren ezartzerakoan: informazio falta, informazio truke-eza, prezio baxuenaren printzipioa... Hala ere, honi aurre egiteko lan asko egin da, hor dago esaterako lhobe erakunde publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan egin duen lana.

Ondorioztatu da ere, erosketa eta kontratazio publiko berdea garatzen joan dadin, irizpideen txertaketan bezalako aspektuak sinplifikatzea bilatu behar da. Honez gain, formazioa modu jarraitu batean emateak asko lagunduko luke, baita praktika onen publikazioak ere bai.

Politika idealizatu bat izatetik orain duen estatuserainoko prozesuaren adierazle da legedia. XXI. mende hasieratik eta gaur egun arte pixkanaka-pixkanaka legeak sartzen joan ziren politikarekin erlazionaturiko ingurumengaietara buruz, baina 2004ko zuzentzauek eta batez ere 2014koek bultzada handia eman zioten erosketa eta kontratazio publiko berdeari.

Lan honetan ere argi gelditzen da zein egokia den erosketa eta kontratazio publiko berdea eskualdeen garapena emateko. Ondoriozta daiteke, ingurumenean positiboki eragiteko botere handia izateaz gain, onurak dakartzala gizarterako ere bai, bai administrazio zein produktu berdeak ekoizten eta kontratazio berdeak eskaintzen dituzten enpresei, eta beraz komenigarria dela guztientzat politika oraindik haratago joan dadin.

Erosketa eta kontratazio publiko berdeak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruz esan daiteke ona dela, baita biharko egunean hobea izango dela ere. Ez da Europako iparraldeko herrialdeen mailara iristen baina erosketa eta kontratazio publiko berdeari dagokionez aurreratua den autonomia erkidegoa da. 2011n lehenengo programa sortu zenetik hainbat produktu eta zerbitzu konkreturen erosketa eta kontratazioan ingurumen irizpideak sartu ziren, produktu hauen abanikoa zabaltzeko asmoarekin etorkizun batean. Honi jarraipen eta hobekuntza emateko 2016an egindako bigarren programak oraindik helburu handiagoak jarri zituen 2020rako, ondorioz gogor dabil lanean Eusko Jaurlaritzak politika hau behin betiko finkatu dadin Euskal Autonomia Erkidegoan, eta joera ikusita lortuko duela iragarri daiteke.

Azkenik, Administrazio publikoei egindako inkesta ezberdinek adierazten dute badaudela produktu batzuk zeintzuenganako alde zuzeneko jarrera bat dutela administrazioek. Hauen artean daude papera, udal ibilgailuak edo garbiketa zerbitzuak.

12- ERREFERENTZIAK

Ecoespaña y Fundación Biodiversidad. (2004) "Recursos Mundiales 2004: Decisiones para la Tierra: equilibrio, voz y poder".

<http://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/14036>

(Sarbidea: 19-06-2018)

Ihobe. (2016a) "2020rako Euskadiko Erosketa Eta Kontratazio Publiko Berderako Programa"

<http://www.ihobe.eus/publicaciones/programa-compra-y-contratacion-publica-verde-pais-vasco-2020>

(Sarbidea: 19-06-2018)

García Paz, Jorge. (2009) "Las compras verdes, una práctica sustentable y ecológica: posibilidad de su aplicación en el Perú"

<http://www.redalyc.org/html/2816/281621749006/>

(Sarbidea: 19-06-2018)

Valcárcel Fernández, Patricia. (2011) "Impulso decisivo en la consolidación de una contratación pública responsable. Contratos verdes: de la posibilidad a la obligación"

http://www.actualidadjuridicaambiental.com/wpcontent/uploads/2011/04/2011_04_Valcarcel-Patricia_Contratacion_publica_responsable1.pdf

(Sarbidea: 19-06-2018)

Commission Of The European Communities. (2008) "Public procurement for a better environment"

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52008DC0400&from=EN>

(Sarbidea: 19-06-2018)

Ihobe. (2010) "Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua"

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-3613/eu/contenidos/documentacion/contratacion_publica_verde/eu_doc/indice.html

(Sarbidea: 19-06-2018)

Bouwer M, de Jong K, Jonk M, Berman T, Bersani R, Lusser H, Nissinen A, Parikka K and Szuppinger P, 2005. Green Public Procurement in Europe 2005 - Status overview. Virage Milieu & Management bv, Korte Spaarne 31, 2011 AJ Haarlem, the Netherlands.

<http://europa.eu.int/comm/environment/gpp/media.htm>

(Sarbidea: 19-06-2018)

Ihobe. (2012) "Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea, baliabide naturalak eta ekonomikoak eraginkortasunez erabiltzeko bidea"

<http://www.ihobe.eus/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=97801056-cd1f-4503-bafa-f54fa80d9a44&Cod=7b4559de-1078-4a32-bf7d-ba17c7910709&Idioma=eu-ES>

(Sarbidea: 19-06-2018)

Administración General del Estado. (2015) “II informe general sobre el estado de la contratación pública verde en la administración general del estado, sus organismos públicos y las entidades gestoras de la seguridad social”

http://www.mapama.gob.es/es/ministerio/planes-estrategias/plan-de-contratacion-publica-ecologica/segundoinformegeneralsobreelestadodelacontratacionpublicaverdeenlaage_tcm30-88970.pdf

(Sarbidea: 19-06-2018)

Miranzo Díaz, Javier. (2017) “Hacia una administración pública sostenible: novedades en la legislación europea de contratación pública”

http://www.actualidadjuridicaambiental.com/wp-content/uploads/2016/12/2017_01_09_Miranzo_Legislacion-europea-contratacion-publica-sostenible.pdf

(Sarbidea: 20-06-2018)

Ihobe. (2018) “Kontratazio publikoari buruzko legeria berria, ingurumena zaintzeko apustu”

<http://www.ihobe.eus/albisteak/kontratazio-publikoari-buruzko-legeria-berria-ingurumena-zaintzeko-apustu>

(Sarbidea: 20-06-2018)

Ihobe. (2014) “Erosketa publiko ingurumenarekiko arduratsuen onurak”

<http://www.ihobe.eus/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=97801056-cd1f-4503-bafa-f54fa80d9a44&Cod=f0fd3c91-bbff-4f73-bc63-6b910cc1e2e2&Idioma=eu-ES&Tipo=>

(Sarbidea: 20-06-2018)

Pernas García, Jose. (2011) “La contratación pública verde: dificultades actuales para su desarrollo”

<http://www.obcp.es/index.php/mod.opiniones/mem.detalle/id.32/relcategoria.121/relmenu.3/chk.28581ef87ab30581c98f2de77ab1120a>

(Sarbidea: 20-06-2018)

Foy Valencia, Pierre. (2011) “Consideraciones sobre la contratación pública (“verde”)” Revista de la facultad de derecho, nº66, pp 335-350

<http://revistas.pucp.edu.pe/index.php/derechopucp/article/view/3136>

(Sarbidea: 20-06-2018)

Ihobe. (2016b) “Erosketa publiko berdearen eta bizi-zikloaren kostuaren azterketaren gidaliburua”

<http://www.ihobe.eus/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=97801056-cd1f-4503-bafa-f54fa80d9a44&Cod=bacafc9f-66a9-43c4-9866-fd70273beb88&Idioma=eu-ES>

(Sarbidea: 20-06-2018)

Kortabarria Olabarria, B., Roa Zubia, G. (2003) “Agenda 21, Euskal Herrian ere martxan”

<http://zientzia.eus/artikuluak/agenda-21-euskal-herrian-ere-martxan/>

(Sarbidea: 20-06-2018)

Bilbao 21 Agenda.

[http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/agenda21/Zer-da-Agenda-](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/agenda21/Zer-da-Agenda-21/eu/100078754/Contenido_Detalle)

[21/eu/100078754/Contenido_Detalle](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/agenda21/Zer-da-Agenda-21/eu/100078754/Contenido_Detalle)

(Sarbia: 20-06-2018)

Eusko Jaurlaritza, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. (2014) "EAEko Ingurumen Esparru Programa 2020"

http://www.euskadi.eus/contenidos/estadistica/amb_ia_2015/eu_def/PMA_2020_eu.pdf

(Sarbia: 20-06-2018)

Eustat.

<http://eu.eustat.eus/indice.html>

(Sarbia: 20-06-2018)

Ihobe.

<http://www.ihobe.eus/sobre-ihobe>

(Sarbia: 20-06-2018)

Udalaitz, Daniel. (2004) "Zer da: AZTI"

["http://www.argia.eus/argia-astekaria/1971/zer-da-azti](http://www.argia.eus/argia-astekaria/1971/zer-da-azti)

(Sarbia: 20-06-2018)

Basañez Llantada, Aitor. (2017) "La gestión ambiental en las empresas vascas: estudio de la aplicación del análisis del ciclo de vida en las empresas de la capv."

Ihobe. (2002) "Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020"

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pma2020/eu_def/adjuntos/iep2006.pdf

(Sarbia: 20-06-2018)

Ihobe. (2007) "II Ingurumen Esparru Programa 2007-2010"

https://www.ehu.eus/documents/2201416/2352140/IEP_2007_2010.pdf

(Sarbia: 20-06-2018)

Ihobe. (2011a) "III Ingurumen Esparru Programa 2011-2014"

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pma2020/eu_def/adjuntos/III_PMA_120711.pdf

(Sarbia: 20-06-2018)

Ihobe. (2011b) "Eusko Jaurlaritzaren Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2011-2014"

<http://www.ihobe.eus/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=97801056-cd1f-4503-bafa-f54fa80d9a44&Cod=6f7d2cb1-8299-4db9-813c-9d60eabbdaac&Idioma=eu-ES>

(Sarbia: 20-06-2018)

Erauskin Tolosa, Artizar. (2014) "Erosketa eta kontratazio publiko berderako ekimenak: Gipuzkoa herrialdeko kasurako aplikazioa"

http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Artizar_Erauskin_TESIA.pdf

(Sarbia: 20-06-2018)

Ihobe. (2016c) "Ekonomia zirkularra euskadiko industrian"
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/economia_circular/eu_def/adjuntos/diaknostikoa.pdf
(Sarbia: 20-06-2018)

Eusko Jauraritza. (2013) "EAeko Sektore Publikoa arrazionalizatzeko eta berrantolatzeko estrategia"
https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/3392/EAeko_Sektore_Publikoa_arrazionalizatzeko_eta_berrantolatzeko_estrategia.pdf?1375191124
(Sarbia: 25-06-2018)

Temmerman, Laurence; Habets, Amélie. (2005) "Green public procurement"
<https://www.maastrichtuniversity.nl/sites/default/files/2013/habets.pdf>
(Sarbia: 25-06-2018)

Renda, Andrea; Pelkmans, Jacques; Egenhofer, Christian; Schrefler, Lorna; Luchetta, Can Selçuki, Giacomo; Ballesteros, Jesus; Zirnhelt, Anne-Claire. (2012) "The uptake of green public procurement in the eu27"
<http://ec.europa.eu/environment/gpp/pdf/CEPS-CoE-GPP%20MAIN%20REPORT.pdf>
(Sarbia: 25-06-2018)